

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 28a / 586. zenbakia



PAZKOAK04

Mizpildi 8
943 76 12 32
BERGARA

Matxiategi 1
943 76 72 73
BERGARA



MIZPILDI



OKINDEGIA

Jai zoriontsuak guztioi!



San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak



Zorionak denoi!



ATREBENTZIAEZPADA/ Jaietako programatik zer nabarmenduko zenuke? Ezer sumatzen duzu faltan?



MAIALEN ORBEGOZO
52 urte

Musika asko gustatzen zait, guretako moduko dantzaldiak ondo daude. Bestalde, jaietako arratsaldeak nahiko hutsik egoten dira, zezenak gustuko ez ditugunondako behinik behin.



MANU CURADO
28 urte

Bideberriko kontzertuak atsegin ditut gehien. Giro polita egoten da, gazte jende mordoak elkartzen delako. Hala ere, talde ezagunagoak ekarriko balituzte, askoz hobeto.



ANA INCLAN
11 urte

Lagunok barraketan ibiltzen gara gehienbat, egunez eta gauzez. Barraken prezioa merkeagoa izatea igartzten dugu faltan. Bestela, jaiak ondo daude, primeran pasatzen dugu.



AINHOA NARBAIZA
11 urte

Marrakzi lehiaketan eta barraketan ibiltzen naiz gusturen. Marraztea asko atsegin dut eta barraketan giro polita egoten da. Jaietan gauerdira arte-edo ibiltzen gara, segun...



JOSE CARLOS IBAIBARRIAGA
32 urte

Seme-alabekin eta barraketan, jolasparkean eta horrelakoetan ibiltzea tokatzen zait. Dena den, koardilendako gauza gehiago egotea faltan sumatzen dut, giroa pizteko.



JOSE MARI ELORZA
58 urte

Jaietan herrian geratzen naiz beti, kontzertuak eta kaleko giroa atsegin dut gehien. Zezenak ere gustatzen zaizkit eta behar den moduko sokamuturra igartzten dut faltan.

KONTUANHARTZEKOAK

OHARRAK

1942AN JAIOTAKOEN AFARIA EKAINAREN 12AN

1942an jaiotako enafaria ekainaren 12an Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Aurretik meza izango da Santa Marinaran, 19:00etan. Izene-matea Mizpildi okindegian, Edel tapiz dendan edo Azpeitxi jatetxean, ekainaren 8ra arte.

1966AN JAIOTAKOEN AFARIA EKAINAREN 19AN

1966an jaiotako enafaria ekainaren 19an Sirimiri jatetxean. Izenematea (10 euro) Ariznoa tabernan.

ODOL ATERATZEA

Hurrengo odol ateratzea eguaztenean, ekainaren 9an, izango da, Seminarioan, 18:30ean hasita.

JARDUNENAGENDA

KONTSEILUAREKIN BAT

Kontseiluak ekainaren 5erako Iruñean deitutako manifestaziora joateko autobusa izango da. Txartelak Arranon, Kortazarren eta Jardunen, Errotalden.

OLINPIADAK

Olinpiadetako hurrengo jardunaldia ekainaren 5ean jokatu da.

INFORMATIKA IKASTAROAK

KZguneak herritar guztientzako informatika ikastarok eskaintzen ditu. Argibideak Irizar jauregiko (Barrenkalea 33) lehen solairuan edo 943 76 73 24 telefono zenbakian.

'AZUR'-EN ARGAZKIAK

Azur-en argazki erakusketa ikusgai dago Artekale pizzerian. Hamahiru lan jarri ditu ikusgai Azur-ek, ekainaren amaierara arte.


CARITASEN OHARRA

Hainbat familiaren etxebizitzak janzteko etxeko tresneria jasotzen dihardu Caritasek. Kanpian parte hartzeko interesa dutenek Sierbetako bulegora edo 943 76 72 77 telefono zenbakira jo dezakete.

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 28
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
ZAPATUA, 29
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
DOMEKA, 30
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
ASTELEHENA, 31
MOZOS, San Pedro 4. 943 76 12 15
MARTITZENA, 1
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
EGUAZTENA, 2
ZABALA, Barrenkalea 25. 943 76 19 63
EGUENA, 3
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 054

ALKATEARENAGURRA/ Victoriano Gallastegi



Aurtengo Mendekoste jaiak agintaldi berriko lehenak ditugu. Aldaketak izan dira udalbatzan, eta denek dakartzate asmo berriak eta gure Bergara maitearen etorkizuneko garapenerako ilusio eta kemena; aisia, kultura, industria eta hainbat alorretan abian jarritako egitasmo handietarako kemena, hain zuzen ere.

2004ko Mendekoste jaietarako egitaraua aurkezten dizuet.

Ilusio handiarekin egingo izan da, eta honen bitartez berau eratzen parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Eta, bide batez, jaiak ondo pasatzera animatu nahi zaituztet, egun hauetan gure eguneroko eginbeharrak alde batera lagata.

2004. urtean Melchor Sánchez Toca (Tocako Markesa) jaio zeneko 200. urteurrena eta Telesforo de Monzon jaio zeneko 100.a betetzen dira. Egitarau honetan bertan bien biografiak daukazue jakingarri.

Amaitzeko, gurekin egon ezin direnak gogoan ditugula, jaiak bizitzeko aukera dugunok bakean eta adiskidetasunean ospa ditzagula.

Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatea

ETABARRUAN...

MENDEKOSTE JAIK 2004

Egitaraua	/4
Aritzeta	/8
Barrakak	/9
Herriko sukaldariak	
Iehian	/10
Errekortadoreak	/13
Zezenketa	/14
Txirrindulariak	/15
Dantzan	/16
Rocka	/19
Egan	/22
Mariachi	/27
Txosnak	/28
Herri bazkaria	/30
San Esteban	/33
GOITB	/34
Jaletako kartela	/37
Pilota jaialdiak	/38
Jardun	/39
Josu eta Jokin	/40
Zorion agurrak	/41
'Kontuola'	/42
'Goibekokale'	/44
Erretratua	/46



Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Irati Agirreazaldegia,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

EGITARAUA

JAIETAKO EGITARAUA

Egubakoitza 28

20:00 Jaiak hasiko dira etxafuego jaurtiketarekin eta BITORIANA-TXOren JAITSIERAekin, San Martin plazan.



BURUHANDIAK KALEETAN ZEHAR.

Segidan Udal Musika Bandaren KALEJIRA, hiriguneko kaleetan.

Iluntzean Matxiategin BARRAKAK irekiko dira, eta Bideberrin, berriz, TXOSNAK.

20:30-21:30 Jardun-eko TRIKITILARIEN KALEJIRA.

22:30 Aritzeta abesbatzaren 25. urteurreneko KONTZERTUA Udal pilotalekuan.

Parte hartzaileak: Esoziko abesbatza (Soraluze), Sostoa (Eibar), Bergarako Orfeoia, Bergarako Orkestra Sinfonikoa, Gabero abesbatza, Alai taldea eta Aritzeta.

Zapatua 29

09:00 XXIII. Haur eta Gazteen Plastika Sariaketa. Beart taldeak antolatuta.

10:00 DIANA

Bolutik Kobok dultzaineroak

Labegaraietatik Udal Txistulari Banda.

Oxirondotik, Kobok dultzaina jotzaileak.

Labegaraietatik, Josu eta Jokin soinu jotzaileak.

Ondoren herriko plazan elkartuko dira guztiak,

eta Mizpirualdera ere egingo dute bisita.

11:30 Herriko elkartearen arteko BAKAILAO LEHIAKETA. San Martin. Lehiakideek lanean diharduten bitartean, trikitilariak plaza alaituko dute.



UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA.

13:00 Haur eta gazteen PLASTIKA SARIKETAKO SARI BANAKETA, Beart elkartearen egoitza (Bolu kalea, 49).

17:45 Haurrentzako BONBA JAPONIARRAK San Martin plazan.

18:30 Bergarako eta Hondarribiako ERRALDOIEN, KILIKIEN ETA BURUHANDIEN KONPARTSAREN KALEJIRA, Bergarako Udal Txistulari Bandak eta Kobok dultzaineroek lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta kalea, Ramon Maria Lili kalea, Ibargarai hiribidea, Fraiskoizuri plaza, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin plaza.

19:30 ERREKORTADOREEN EUSKADIKO V. TXAPELKETA, zezen plazan. Ekitaldia Elgoibarko dultzaineroek girotuko dute.

20:00 ELEKTROTUNA TALDEA, Bergarako kaleetan zehar.

20:00 KONTZERTUA, Non servium, Ostiada oi!, Ketchoop eta trapatoni taldeekin.

23:30 DANTZALDIA San Martin plazan, Tarantella Orkestrarekin.

“EGUZKI - ALDE” SM

Zerrategia

Labegaraieta • Tel.: 943 76 11 06 / 943 76 00 80

Ondo ibili jaietan!

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea

Odontologia orokorra

Inplanteak

Ortodontzia

Ahoko zirugia

Fraiskoizuri 5A, I-D. BERGARA

Ondo ibili Mendekoste jaietan!



Tf. 943 76 56 88

EGITARAUA



ERRALDOIEN ALARDEAN BURUHANDIAK IBILIKO DIRA KALERIK KALE.

Domeka 8

08:00 SOKAMUTURRA San Martin plazan, Elgoibarko dultzaineroek animatuta. Ondoren, Elgoibarko dultzaineroen KALEJIRA,

San Martin plazatik zezen plazara.

09:00 Lehen ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Martin plaza, Ramon Maria Lili kalea eta zezen plaza. Segidan

ENBOLATUAK.

09:15 ALBORADA, Udal Txistulari Bandarekin.

10:00 "LXIX. Pentekoste Saria"

TXIRRINDULARI LASTERKETA, 23 urtez azpikoentzat eta elite mailakoentzat, Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta. Lehendakari txapelketarako puntuagarria. Irteera San Lorenzo auzotik.

11:00 MEZA NAGUSIA San Pedro parrokian. Udal Musika Bandak eta Udal Txistulari Bandak korporazioari lagunduko diote mezataraino.

11:30 XXVII.EUSKADIKO DANTZA

TXAPELKETAren kanporaketak, San Martin plazan, hamabost urtez azpiko bikote gazteentzako. Lehenengo 12 bikoteak sailkatuko dira.

12:00 Udal Musika Bandaren KONTZERTUA Espoioan.

Egitaraua:

Añoranza. (A. Gz. Chirlaque)

Poeta y aldeano. (Fr. Von Suppé)

El Caserío. (J. Guridi)

Noah's Ark. (B. Appermont)

La Dolores. Jota handia

Bergarako ereserkia. (A. Gz. Chirlaque)

Zuzendaria: Alfredo Gz. Chirlaque

13:30 Bergarako kaleetan zehar Elgoibarko dultzaineroen KALEJIRA

17:15 ZEZEN PLAZARAINO KALEJIRA, San Martin plazatik irtenda, Zumarragako bandak eta Elgoibarko dultzaineroek lagunduta.

17:30 XXVII.EUSKADIKO DANTZA

TXAPELKETA San Martin plazan (hamabost urtez azpikoentzako). Udal Txistulari Bandak eta trikitilariak lagunduko dute.

18:00 ZEZEN FESTA, Salamancako Lopez Chavesen ganaduekin, Betizu zezen zaleen elkarteak antolatuta.

Nobilleroak: Jabier Anton eta Jose Jabier Exposito nafarrak, Daniel Cuevas zaragozarrak, Iban Abasolo orduñarra eta sobresaliente moduan Ander Alvarez, bergararra. Burtzikaria: Igor Etxaniz, "Kinttela", azpeitiarra. Zumarragako Musika Bandak eta Elgoibarko dultzaineroek alaituko dute ekitaldia.

23:00 Joselu Anaiak taldearekin San Martin plazan.

Astlehena 31

09:00 Bigarren ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili kalea eta Zezen plaza.

Segidan BIGANTXAK zezen-plazan, Los Incansables txarangakoek alaituta.

10:30 PLATER TIRAKETA, Ollagorra elkarteak antolatuta, Gorlako Irubide zelaian.


11:30 Mariachi Garibaldi taldearen KALEJIRA Bergarako kaleetan.

11:30-13:30 Ipintza II-ko patioan HAURENTZAKO JOLAS PARKEA, gaztelu puzgarriekin eta beste hainbat jokorekin.

12:00 BERMUTH KONTZERTUA Espoioan Mariachi Garibaldi taldearekin.

17:00-20:00 HAURENTZAKO JOLAS PARKEA Ipintza II-ko patioan.

18:00 HAURENTZAKO JOLASAK zezen plazan, Manzarbeitia ganadutegiko zezentxoekin eta poniekin. Los Incansables-ekoak, musika joz.



ENTZIERROA GOIZEAN GOIZETIK.



ALURA, S.L.

- MEKANIZAZIORAKO ALTZAIRUA
- ALTZAIRU HERDOILGAITZA
- TORLOJU HERDOILGAITZA
- ESTANPAZIORAKO ALTZAIRU HERDOILGAITZA
- SOLDADURA HERDOILGAITZA
- ALUMINIOA

HAITZ ITURRI 6 (P. K. 267)
20570 BERGARA
Gipuzkoa

Tel. 943 76 02 50
Faxa. 943 76 03 15
e-maila: alura@logiccontrol.es



Zorionak
denoi!



**ROTULOS
ZABALETA**
Mota guztietako errotuloak

Ondo ibili
guztiok
Pazkoetan!

Telf. 943 76 57 34 Faxa 943 76 58 53 Mobila 689 54 81 83 **BERGARA**
r-zabaleta@euskalnet.net

EGITARAU



ASTELEHENEAN HAURREN EGUNA; BEREZIKI EURENDAKO EKITALDIK IZANGO DITUZTE.

22:30 KONTZERTUA Bideberrin, *Pin Pan Pun band*, *Arima Beltza*, *N.C.M.* eta *Supercools* taldeekin.

23:30 Nueva Etapa taldearekin DANTZALDIA Espoioian.

18:00 Umeendako JOLASAK zezen-plazan, Los Incansables txarangak lagunduta. Ondoren, Los Incansables txarangarekin kalejira.

22:30 ROCK KONTZERTUA Bideberrin: Sorkun, Kokein, Eraso, Destruccion eta Goiko rock taldeak.

23:00 Tarantella orkestrarekin DANTZALDIA Espoioian.

Martitzena 1

09:00 Hirugarren ENTZIERROA. Ibilbidea: Gaspar jatetxeko garajetik irten, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili kalea eta zezen plaza. Segidan ENBOLATUAK. Los Incansables txaranga arituko da zezen-plaza giroten.

11:00-20:00 Pentekoste jaietako kartel lehiaketara aurkeztutako KARTELEN ERAKUSKETA, Udaletxeko arkupeetan.

11:30 Xafre eta Zaharra, eta losu eta lokin trikitilariekin KALEJIRA.

11:30-13:30 HERRI TRENArekin txango

turistikoa egiteko aukera, Fraiskoizuri plazatik irtenda.

12:30 HERRI KIROL ENBOLATUAK, San Martin plazan. Inazio eta Iñaki Perurena aita-semeak harri-jasotzen eta Fausto, Aratz eta Ugaitz Mugerza aita-semeak aizkorañ. Aurkezle lanak Gabixolak egingo ditu.

13:00 TRIKIPOTEOA, Xapre eta Zaharra, eta losu eta lokin trikitilariekin, San Martin plazatik hasita.

14:30 HERRI BAZKARIA San Martin plazan. Antolatzaileak: Jardun elkarte eta Xamatx dantza taldea. (Euria eginez gero Seminarioko patio estalian izango da).

16:00 Bazkaldoan KOADRILEN ARTEKO

JOKUAK, Iraunkorrek txarangak alaituta. **16:30** PILOTA PARTIDA INTERESGARRIAK Udal Pilotalekuan.


17:00-20:00 HERRI TRENArekin txango turistikoa egiteko aukera, Fraiskoizuri plazatik irtenda.

18:00 Herriko koadrilentzako ZESENTXOEKIN JOLASAK, zezen-plazan: Futbola, jauziak...

Ondoren, KALEJIRA Los Incansables txarangarekin.

20:00-21:00 eta 22:30etik aurrera DANTZALDIA Egan taldea San Martin plazan.

24:00 Bitorianatxoren igoserarekin, PENTEKOSTE JAIEN AMAIERA.



PILOTA PARTIDU INTERESGARRIAK.

Servimasa

Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49 BERGARA

Ondo pasau jaiak!



ACERIALIA PERFILES BERGARA, S.A.
Grupo Arcelor


Altzairu-galdatzea eta profil komertzial eta estrukturalen laminazioa

ZORIONAK BERGARAR GUZTIOI!



Ibarra kalea 6 - Tel.: 943 76 19 40 - Faxa: 943 76 52 43

BERGARA (Gipuzkoa)



Ondo ibili Pazkoetan!

**UDAL
EUSKALTEGIAK**

**BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA**

Zabalotegi, 13 • BERGARA
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net
berg.euskudal@euskalnet.net

**Eraman
dotoretasuna
zure etxera**



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 • OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 • Faxes: 943 78 15 51

KONTZERTUA

Aritzeta abesbatzak kantuan ospatuko du bere 25. urteurrena

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, kontzertua eskainiko du Aritzetak pilotalekuan, beste hainbat talderekin batera

IRATI AGIRREAZALDEGI

Aritzeta abesbatzak 25 urte bete ditu. Hori dela eta, ospakizun modura hainbat ekitaldi antolatu ditu. Ikuskizun nagusia izango da gaur pilotalekuan izango den kontzertua.

Hainbeste urte ez dira alferrik pasa, eta Aritzeta abesbatzako kideek modu berezian ospatu nahi dute 25. urteurrena.

Bergarako Orfeoia harrobi baten beharra zuen eta Alai taldera jo ohi zuen abeslarien bila. Bestalde, Bergaran herri musika entzuteko gogo zegoen. Arrazoi horiek kontuan hartuta Aritzeta sortu zen.

Hala ere, kontuan hartu behar da Alai taldeak Aritzeta sorrarera izan zuen pisua. Izan ere, Alai taldeak herriko kaleak girtzen zituen eta garai hartan Orfeoian jende gutxi sartzen zen. Orfeoia egiten zituen emanaldiak ere serioagoak ziren.



Aritzeta abesbatzatik 600 lagunetik gora pasa dira 25 urte hauetan.

Beraz, Alai taldearen ekimenez sortu zen Aritzeta abesbatza. Hasiara hartan 70 lagunek jarduten zuten. Lehen emanaldia Bergarako jaietan egin zuten, Novedadesen.

HIRU ZUZENDARI
Emanaldi ugari egin ditu Aritzetak urte hauetan guztietan, Euskal Herrian, Espainian zein Europako beste hainbat lekutan. Abesbatzatik pasatutako kide-

ak ere asko izan dira, 600 lagunetik gora, hain zuzen ere. Eta abeslari hauek gidatzen hiru zuzendari: Alfredo Gonzalez Chirlaque, Izaskun Labaien eta Imanol Urtzelai.

Urte hauetako lana gogoratzeko argazki erakusketa antolatu dute. Udaltzeko osoko bilkuren aretoan azken 25 urteotako irudiak ikusgai egongo dira martitzena bitartean.

Bestalde, urteurrena ospatzeko ekitaldi berezia izango da gaur, egubakoitza, pilotalekuan. Bertan, koralarren historia laburtuko dute eta gero kontzertua izango da.

Kontzertua

LEHENENGO ZATIA

- ARITZETAren historia laburtzen duen bideoa
- ALAI taldearen aurkezpena eta emanaldia
- ARITZETA abesbatza Hiru etapetako taldeek jardungo dute epe bakoitzeko zuzendariekin

BIGARREN ZATIA

- ARITZETA abesbatza
- ALAI Taldea
- EZOZIKO AMA abesbatza
- SOSTOA abesbatza
- Bergarako Orkestra Sinfonikoa
- Bergarako Orfeoia
- GABERO abesbatza
- XAMATZ dantza taldea

*Mentekoste
jaietan ondo pasau!*

Osintxu auzoa - Bergara
Tel.: 943 76 48 63

Txurigo Jatetxea



**ZORIONAK
BERGARAKO JAIXETAN!**



metagra

Amillaga 22 P. K. 79
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 13 48
Faxe: 943 76 50 34

e-maila: mse@metagra.com • www.metagra.com

UMEAK

Barrakak eta jolasparkea jaietan, umeen gozagarri

laz bezala, aurten ere 25 postu inguru ipiniko dituzte Matxiategiko aparkalekuan


IRATI AGIRREAZALDEGI

Umeen gozagarri eta gurasoen poltsikorako kaltetan, barrakak izugarriko arrakasta izan ohi dute jaietan. Urtero moduan, aurten ere Matxiategiko aparkalekuan egongo dira barrakak.

Berrikuntza nabarmenik ez da izango aurtengo jaietan barrakei dagokienez. Baina, hala ere, Matxiategiko aparkalekuan iazko hainbat postuarekin batera jendearendako berriak izango diren zenbait ipiniko dituztela jakinarazi digute Ferietako Salerosleen Elkartetik.

Guztira, 24 postu izango dira: auto-txokeak, Kartzela, Matxinsaltoa, Tropicana, ohe elastikoak, Scalextrixa, txiki-parkea, katedun zabuak... Aurtengo nobedadea Hodeia izeneko barraka da. Gora eta behera ibiltzen den barraka da hori.

Hauetaz gain, tonbola, bingoa eta tiro posturik ere



Barrakaren prezioa 1,50 euro da, baina astelehen goizean eta asteazkenean 0,75 balioko dute txartelek.

ARTXIBOA

Aurtengo berrikuntza Hodeia izeneko barraka izango da; hainbat zozketa eta tonbola postu ere berriak izango dira

Astelehenean jolas-parkea izango da Ipintzan, eta, besteak beste, umeendako gaztelu puzgarriak egongo dira bertan

Matxiategin

Barrakak astelehen goizean eta asteazkenean prezio berezia

Ipintzan, astelehean

Jolasparkea

ez da falta izango. Ezta zozketa posturik ere; aurten, gainera, berriak egongo direla esan digute Ferietako Salerosleen Elkartetik.

Bestalde, barraketan ibili ostean gosetzen diren umeendako edo zain dauden gurasoendako, txurroak erosteko aukera egongo da. Bi txurro-denda ipiniko dituzte, baita taberna ere.

Prezioa ere ez da aldatuko iaztik hona. Barraketako bidaia bakoitzak 1,50 euro balio du. Hala ere, astelehen goizean eta asteazkenean egun osoz txartelak merkeagoak izango dira: 0,75 euro.

JOLASPARKEA

Astelehenean, bestalde, umeendako jolas parkea egongo da Ipintzan.

Bertan, kartak egongo dira 8 eta 14 urte artekoendako eta gaztelu puzgarriak 6 eta 14 urte arteko neska-mutilendako. Txikitxoendako, berriz, txirristara puzgarria, ludoteka, piloten etxea... Honetaz gainera, denek edukiko dute apropos ipinitako atera golak sartzeko aukera.



Construcciones

MAURICIO ARREGI S.A.

Jai zoriontsuak herritar guztioi!

Masterreka 14-16 • Tel.: 943 76 11 23 • Faxe: 943 76 30 41

Net

AENOR

ER
Empresa Registrada

Matricería Agorrosin S.L.

DOITASUNEZKO MOLDEEN ETA METAL GOGORREZKO TRESNEN FABRIKAZIOA

San Lorenzo industri poligonoa - Haitz Iturri 6, 279 posta-kutxa

20570 BERGARA

Tel.: 943 76 29 63

Faxe: 943 76 72 84

Posta elektronikoa: Agorrosin@agorrosin.com

**Matricería
Agorrosin**

**ZORIONAK
BERGARAR
GUZTIOI!**

SUKALDARITZA

Hamaika elkarte lehian bakailaoa prestatzen

Partaideek bakailaoa pil-pilean prestatu beharko dute; lehia bizia izango da herriko sukaldarien artean

San Martin plazan

Zapatua
11:30

Bakailaoa pil-pilean prestatuko dute 11 elkartetako parte-hartzaileek

EDU MENDIBIL

Elkarteen arteko sukaldaritza lehiaketa jokatu da San Martin plazan zapatuan, 11:30ean. Herriko hamaika bikote izango dira lehian, lapiko artean nor baino nor gehiago.


Nork esan du sukaldeko lanak emakumeen gauza direla? Pazkoetako sukaldaritza lehiaketako partaidetzari begira behintzat ez dago hori esaterik. Bihar lehiatuko diren elkarteetako ordezkarien artean ez dago emakume bakar bat ere. Esan bezala, 11 elkarte lehiatuko dira, iaz baino bi gutxiago, hain zuzen. Beraz, 22 lagunek jardungo dute lapiko artean. Juan Luis Bilbao eta Jose Ignazio Larrañaga, Altsasu elkarteordezkatuz; Pedro Rico eta Donato Ormazabal (Gure Ametsa), Zigor Ruiz de Egin eta Felix Eguren (Ollagorra), Angel Martin eta Rafa Arteaga (Basalgo), Iñaki Umerez eta Roberto Maiz-

tegi (San Juan), Mikel Gomez eta Rafael Nafarrete (Artatse), Roman Garitano eta Pepelu Agirrezabal (Umore Ona), Jose Mari Perez eta Juan Mari Corral (Pertxa elkarte), Miguel Lazkano eta Jose Mari Etxeberria (Hermandad Pertxa), Rafael Olañeta eta Patxi Etxaniz (Aizepe) eta Iñaki Olabarria eta Jose Gabi-londo (Murinondo).

Horrelakoetan faboritoak zeintzuk diren esatea oso zaila da. Joan zen urtean Pedro Rico eta Donato Ormazabal Gure Ametsako ordezkariak nagusitu ziren. Ormazabal partaideen artean beteranoena dugu eta bakailaoa prestatzeko orduan maisua dela erakutsi du aurreko urteotan.

ORDU ETA ERDIZ LAPIKOARTEAN Goizean zehar trikitilariak jardungo dute giroa alaitzen, sukaldariak mimo handiz bakailaoa prestatzen duten bitartean.

Ordu eta erdi inguru emango dute bakailaoa gertatzen, eta jarraian epaimahaiak erabaki beharko du nortzuk izan diren bakai-




Elkarteetako sukaldariak arreta handiz prestatzen dute bakailaoa.

Sukaldariak bakailaoa gertatzen duten bitartean trikitilariak jardungo dute plazan

lao onena egin dutenak. Irabazleek gainerako partaideei irribarre maltzurrez begiratzeko aukera izango dute, datorren urtera arte behinik behin. Besteak bes-

te, elkartearen prestigioa jokoan jarriko dute bihar. Irabazleek trofeoa eta txapela jasoko dute. Sailkapeneko lehen hirurendako izango dira sariak.



SEGUR
torlojugintza SA

Hotzeko estanzazio bidezko torlojuak eta pieza bereziak

• Tel.: 943 76 26 40 - 943 76 26 41
• Faxe: 943 76 50 95
• E-maila: segur@adegi.es

• Amillaga 16
• 102 posta-kutxa
• BERGARA

Ondo pasau jaixetan!

ISO 9001



DNV
CERTIFICATED FIRM
DCA-1086-A2-2001

Etxebizitzen, etxabeheen eta garajeen eraikuntza

ORTUIBAR SA
PROMOZIOAK

Ibargarai 18 BERGARA 943 76 11 18



Salmenta arduradunak:

IÑIGO ALMORZA.
Poltsikoko Tel.: 656 78 12 04

XABI EGIDAZU.
Tel.: 943 76 51 35

JAI ZORIONTSUAK GUZTIOI!

GURE MARKAK:



BIGARREN ESKUKOAK:

- Autoak.
- Furgonetak.
- Lur orotarikoak.



- 27 urte zuen zerbitzura.
- Autoak eta kamioiak konpontzeko tailerrak.
- **BRIDGESTONE** zerbitzu ofiziala.

ETA, GAINERA:
GIDARIRIK GABEKO IBILGAILUEN ALOKAIRUA

Etxerako ederrena, Zanguitun

%20ko deskontua oleo eta etxerako pinturretan

Eskulan eta arte ederretako produktuak ere badifugu



Koloreak sortzeko makina

Paretetarako,
zorurako,
altzariak
margotzeko...

ZANGUITU margoak

Irala z/g. BERGARA.
Tel.: 943 76 19 54.

IRU margoak

Araba etorbidea 3. ARRASATE.
Tel.: 943 79 11 71.

deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4. BERGARA.
Tel.: 943 76 08 69.

Parket flotatzailea* Sintasola* Moketak*
Paper pintatuak

*Salmenta eta etxean ipintzea.

Alfonbrak Alfonbrak neurrira **Funda nordikoak**
Edredoia **Kortinak** **Toailak** **Izarak**

BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko garantia.
Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR ELEKTRAGINTZA



Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

ERREKORTADOREAK

Euskadiko errekortadore onenen arteko lehia

Euskadiko Txapelketa ligaxka sistemarekin jokatu da Bergaran, Elgoibarren eta Tolosan

EDU MENDIBIL

Ohikoa bilakatu denez, Euskadiko Errekortadoreen Txapelketa jokatu da zapatuan, 19:30ean. Iker Agirre eta Unai Arana ditugu herriko ordezkari bakarrak.

Euskadiko errekortadore onenak zeintzuk diren erabakitzeko hiru proba jokatu dira aurten. Zapatukoa, Bergaran, lehenbizikoa izango da eta ondoren Elgoibarren eta Tolosan, San Juanetan, izango dira beste biak. Sailkapen orokorra irabazten duen bikoteak 3.000 euro eskuratuko ditu. Ez da sari makala. Zezenen aurrean jartzea ere ez da txantxetakoa.



Bigantxei errekorreak egiteko eta adarretan uztaiak zintzilikatzeko lau minutuko tartea izango dute partaideek.

ARTXIBOA

BEDERATZI BIKOTE

Bergaran bosgarren urtez jarraian jokatu da Euskadiko Errekortadoreen Txapelketarako proba puntuagarria. Zapatuan bederatzi bikote izango dira lehian zezen-plazan. Iaz

herriko lau lagun ausartu baziren ere, aurten Iker Agirre eta Unai Arana izango dira Bergarako ordezkari bakarrak. Agirrek eta Aranak elkarrekin jardungo dute, eta aurreko urteotan

Zaragozako, Nafarroako eta Gipuzkoako bikoteek jardungo dute zapatuko saioan, faborito argirik gabe

ikusitakoa ikusita, faboritoen artean ditugu. Esperimentzia handia daukate eta ez dira zezenen aurrean kikiltzen diren horretarikoak. Beraiekin batera, Zaragozako, Nafarroako eta

Zezen-plazan

**Zapatua
19:30**

Sarrerak:
nagusienak, 7 euro;
14 urtetik beherakoek,
berriz, 4 euro.

Gipuzkoako errekortadoreak arituko dira. Ikusizuna ziurtatuta dago. Agirre eta Arana ez dira Deba-goieneko ordezkari bakarrak izango: Blas Cruz eta Iñaki Ganuza arrasatearrek eta Egoitz Garcia Etxabe aretxabaletarrak ere jardungo dute zapatuko saioan. Garcia Etxabek *Pelute* nafarrarekin osatuko du bikotea.

LAU MINUTUKO TARTEA

Aurreko urteotan moduan, bikote bakoitzak lau minutuko tartea izango du: lehenbiziko minutuan bigantxei errekorreak egiten saiatuko dira; ondorengo hiru minutuetan ahalik eta uzta gehien zintzilikatu beharko dituzte bigantxen adarretan.

Errekorte artistiko onena epaitzeko orduan, besteak beste, Juanjo Arrieta Udaleko zinegotziak, Juan Luis Bikuña Zezen Zaleak taldeko kideak eta David Maestrek jardungo dute. Elgoibarko dultzaineroak izango dira giroa alaitzen eta Iñigo Almortza *speaker* lanetan arituko da.

**Mendekoste
jai zoriontsuak
guztioi!**



eusko
alkartasuna



eusko
alkartasuna

Barrenkalea 18 Bergara 943 76 26 81

Bideluze

ARROPA GARBITEGIA

AMILLAGA 26 POSTA KUTXA 82 BERGARA
TEL.: 943 764 943 FAXA: 943 769 708

**Laneko arropa
Mantelak
Mantak
Edredoia
Alfonbrak
Moketak
Gortinak**

**Arropa
konpontzen
dugu**

**Bordatuak
egiten
ditugu**

Ondo pasau denok!

ELKARRIZKETA ANDER ALVAREZ TOREATZAILEA

“Artezko toreatzaileak gustuko ditut, toreatze purua atsegin dut”

EDU MENDIBIL

Ander Alvarez torea-tzaile bergarra (18 urte) domekako zezenketako orde-zkoa izango da. Traje distiratsua jantzeko irrikaz dago eta domekan faena bikainarekin egiten du amets Anderrek. Etorkezunean torea-tzailea izan nahi du.

Debutaren aurrean ner-biorik bai?

Bai, nerbioak baditut eta tentsio hori logikoa da. Zezen-plazara ateratzeko eta faena bikaina egiteko gogoz nago. Hala ere, orde-zkoa naiz eta ez dakit txekorra hiltzerik izango dudan domekan.

Traje distiratsua jantziko duzu lehenbizi.

Bai, orain arte txekor-rrak txuliatu ditut, baina ez dut nobillero bezala debuta egin. Traje atxabitxi-zuria jantziko dut, artezko toreatzea, purua atsegin dudalako.

Zelako toreatzailea zara?

El Juli eta bere antze-koen tremendismoa ez dut gustuko: banderillak belau-

niko jartzea eta horrelako-ak. Nahiago dut zutik, man-tso eta zezena ondo erama-ten txuliatu. Besteak beste Enrique Ponce, Javier Conde eta Manzanararen esti-loarekin identifikatzen naiz gehiago.

Toreatzailea izateko grina nondik datorkizu?

Aitona jaiotzez Sala-mancakoa da eta hark piz-tu zidan zaletasuna, txiki-tan. Ondoren, aitari Donos-tiako La Paz zezen eskolara eramateko *pelmada* ematen hasi nintzaion eta 13 urterekin hasi nintzen han. Hiru urte eman nituen, eta

Domekako zezenketa

Anderrek bere aukera itxoiten duen bitartean, Javier Anton, Jose Javier Exposito, Daniel Cuevas eta Iban Abasolok txekor-bana txuliatuko dute domekan, 18:00etan. Lopez Chaves ganadutegiko txekorrak izango dira. Igor Etxaniz Kinttela burtzikari azpeitiarra ere izango da Bergaran. Sarrerak, Canalejasen, Ganbaran edo kultura etxean salgai.

azken bi urteotan Jesus Matias da nire apoderatua. Badakit oso zaila dela, bai-na etorkizunean toreatzai-lea izan nahi dut. Gauzarik handiena da toreatzea, bai-na toki bat izateko, ona iza-teaz gain, dirua behar da.

Senideek eta lagunek zer esaten dizute?

Ama desesperatuta dago nirekin eta aiton-amo-nek ere nahiago lukete zeze-nak barrera atzetik ikusi-ko banitu. Aitak asko lagun-tzen dit, baina ez dakit gustuko duelako edo beste irtenbiderik ikusten ez due-lako. Lagunek, berriz,, domekan animatzera eto-rriko direla agindu didate.

Zelan gertatu duzu domekako zezenketa?

Astelehen eta eguene-tan etxean entrenatzen naiz, ganbaran aretoko toreatzea eginez; martitzen, eguazten eta egubakoitze-tan, berriz, gimnasia eta korrika egiten dut; eta aste bukaeretan Donostiara joa-ten naiz, Ilunbera, apode-ratuarekin.

Domekan zer egin nahiko zenuke?

Ea orde-zko zezena hiltzerik daukadan. Ate handitik irteteko gutxienez bi belarriak moztu nahi nituz-ke. Ea zortea dudan.



Anduri landetxea

Ondo pasau Menteskoteak

Festetako zaratatik ihes egiteko edo jai osteko deskantsurako paraje ezin hobea.

Ubera auzoa 13 • Tel.: 943 58 50 64



INDUSTRIAS



ONDO PASAU JAIXETAN!

Torlojugintza
Especialitatea: era guztietako azkoinak



TXIRRINDULARITZA

Mendekoste txirrindulari sariak 120 lagun elkartuko ditu domekan

Debarrena taldean diharduten Iñaki De Benito eta Kepa Varela bergararrek hartuko dute parte proban


IRATI AGIRREAZALDEGI

Domekan, maiatzaren 30ean, txirrindulari lasterketa izango da. Bergaran hasi eta amaituko den Mendekoste sariaren 59. edizioan, 19 eta 20 urteko txirrindulariek hartuko dute parte.

Parranda-zale batzuk gaupasa eginda etxera bueltan, eta zenbait kirolari errepidera irtenda izango dira domeka goizean. Errepidera, eta bizikleta hartuta, gainera.

Izan ere, urtero bezala, egun horretan jokatu da Mendekoste saria amateur mailako txirrindulari lasterketa. Aurtengoa 59. edizioa izango da.

Goizeko hamarretan San Lorenzo auzoan abiatu eta 125 kilometroko ibilbidea egin ostean, berriz ere San Lorentzora bueltatuko dira txirrindulariak, bertan izango baita helmuga. Antolatzaileek uste dute proba 13:15 inguruan amaituko dela.



San Lorentzoz abiatu eta 125 kilometroko ibilbidea egin ostean, lehen txirrindulariak 13:15 inguruan iritsiko dira helmugara.

IBILBIDEA

Luzea da egin beharko duten ibilbidea. Bergararik Osintxura joan eta berriz Bergarara bueltatuta Eskoriatzara arteko bidea egingo dute. Han, berriz itzuli

Proba irabazitakoak dira Loroño, Fede Etxabe, Ruiz Cabestany edota Indurain txirrindulari ezagunak

eta Osintxura joango dira, eta berriz Bergarara etorriko dira. Ondoren, Oñatitik Udanan gora eginda Legazpira abiatuko dira eta handik Urretxura. Deskaragan behera Antzuolara jai-

tsi eta Bergararik Asentziora helduko dira, eta handik Kanpazarren behera Epeleko bidegurutzera joango dira eta azkenik Eloregerin barrena Bergarara iritsiko dira.

BERGARARRAK

Proba horretan, 19 eta 20 urte dituzten txirrindulariek hartuko dute parte; guztira, 120 lagun inguru izango dira irteera puntuan. Tartean baita bi bergarar ere: Iñaki De Benito eta Kepa Varela. Bi txirrindulari horiek Eibarko Debarrena taldean dihardute.

Maila handiko txirrindulariak lehiatuko dira Bergaran. Proba hori irabazi dutenetako batzuk gero profesional mailara igaro dira: Xabier Lazpiur, Unai Yus, Igor Flores, Perdiguero eta Iker Camaño, esaterako.

Bestalde, Mendekotes saria irabazitakoak dira Loroño, Fede Etxabe, Ruiz Cabestany edota Indurain txirrindulari ezagunak.

Aipatzea komeni da Mendekoste saria 1955. urtera arte profesional mailakoen lasterketa zela.

ALTUBE tailerrak SM



**ESTANPAZIORAKO PIEZAK ETA
TRESNAK MEKANIZATZEA ETA ARTEZTEA**

San Lorenzo poligonoa - Urarte 22
94 posta-kutxa - BERGARA

ZORIONAK DENOI!

Tel.: 943 76 22 74
Faxa: 943 76 04 99



1942a ezkerro

San Juan auzoa
BERGARA
Tel.: 943 76 35 44 • Faxa: 943 76 51 39
Web orria: www.ibili.net

Zorionak bergararroi!



DANTZA

Goizez eta arratsaldez dantza soltean plazan

Aurten 16 urtetik beherakoendako izango da txapelketa, eta hamar bikotek eman dute izena

IRATI AGIRREAZALDEGI

Euskadiko Dantza Suelto Txapelketa izango da jokoan domekan, goizez eta arratsaldez, San Martin plazan. Guztira, 16 urtetik beherako hamar bikotek jardungo dute lehian fandangoa eta arin-arina dantzatzuz.

Bi saiotan banatuko dute txapelketa. Bikote guztiek goiz eta arratsaldez egin beharko dute dantza, eta bi saioetako puntuak batuta erabakiko da irabazlea.

Goizeko saioa 11:30ean hasiko da, eta dantzariak fandangoa eta arin-arina egin beharko dituzte Estanga anaien trikiti doinuen laguntzarekin. Arratsaldekoari, berriz, 17:30ean ekingo diote dantzariak, eta fandangoa eta arin-arina dantzatu beharko dituzte Udal Txistularien Bandak eta trikitilariak jota, hurrenez hurren.



Dantzariak Udal Txistulariak eta Estanga anaien txistu eta trikiti doinuak izango dituzte lagun.

ADIN MUGAN ALDAKETA

Aurtengo edizioan, ordea, izango da aldaketarik: parte-hartzaileen adin muga aldatu egin dute; orain arte 15 urtez azpikoendako izaten zen txapelketa, baina aurten 16 urte artekoek ere hartu ahal izango dute parte.

Izan ere, beste dantza mota batzuetako lehiaketetan hori izaten da adin muga.

Gainera, txikien mailan bikote kopuruak behera egin du azken urteotan, mutirik apenas dagoelako, eta horregatik izan da aldaketa.

SARIAK

Behin dantza saioa amaituta, eta Euskal Dantzarien Biltzarrak izendatutako epaimahaikoek kontu guztiak eginda, diru sariak eta garaikurrak banatuko dituzte.

Dantzari irabazleek, txapela eta zapiak gain,

Euskadiko 27. Dantza Txapelketako bikoteak

Amaia Bolinaga-Aritz Arrillaga / Bergara

Izarne Medina-Jon Arrillaga / Bergara

Ibane Baseta-Mikel Igartua / Bergara

Hiart Bolinaga-Andoni Elortza / Elgeta

Irati Perez de Ziriza-Joseba Barberena / Atarrabia

Irantzu Larrañaga-Iraitz Olariaga / Azpeitia-Azkoitia

Estibaliz Aranguren-Jon Iburguren / Azpeitia

Nagore Larrañaga- Iñigo Larrañaga / Azpeitia

Garazi Lekuona-Unai Santos / Lezo

Iera Maiza-Jon Intxausti / Olabarria -Ordizia

Naiara Uranga-Asier Sarasola / Orio

Aitziber Amantegi-Aimar Abad / Hernani-Urnieta

Idoia Mendez-Endika Plazaola / Zumarraga

160 euroko diru saria jasoko dute, baita Udalak emandako Xabier Diaz de Zerio artista bergararren egurrezko eskultura bat ere.

Bigarren eta hirugarren postuetan geratzen diren bikote dantzariak, berriz, dirua eta Arrieta

herriko eskulturagilearen lana jasoko dute sari modura.

Bestalde, txapelketan jantzirik egokiena erakusten duen bikoteak sari berezia jasoko ahal izango du, eta 12 urtetik beherako lehen bikoteak ere izango du bere saria.



LASA
Jatetxea

Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu

OZAETA JAUREGIA Tel.: 943 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29

SAIK
Mekanizatuak
Mecanizados Saik S.L.

Ondo pasau Pazkoak!

Telleria Kalea. • D Pabiloia, 3C atea.

20570 BERGARA • Gipuzkoa

Tel.: 943 76 25 73 • Faxa: 943 76 74 05



Opel. Ideia berriak. Auto hobekak.

Bai, pentsatzen ari zaren
guztia egiteko gauza da.



Opel Astra berria. Fida zaitez zure begiez.

Gertuagotik begira egiozu: IDSplus gidatzeko sistema interaktiboa, Sport Switch botoia kirol-gidatze hobea izateko, ECOTEC motor indartsuak, Twinport, 200 ZP-rainoko CDTI, eta faro egokituak dituen bakarra bere klasean

Proba ezazu zure Opel kontzesionarioan

Astra gama: kontsumo (l/100 km) mistoa 4,9 tik 9,1 era. CO₂ emisioa (g/km) 132 tik 218 ra

Giauto

Olabarrena z/g Tel. 943 76 33 44/46. **BERGARA**



JATETXEA



TABERNA

Eguneko menua • Plater konbinatuak
Kintadak • Bataioak eta jaunartzeak

Fraiskozuri 7. Bergara. 943 76 20 40.

ANTXONI

Ospatu Pazkoak gurean!

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Jantzitegi apal tolesgarriekin



Parket flotatzailea



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



ROCK ERO

Estilo askotariko rock kontzertuak Bideberrin

Heavy, hardcore-oi! eta rock estiloendako tartea izango da txosnen gunean; musika-zale ugari elkartu izan dira azken urteotan Bideberriko kontzertuetan

Bideberrin

Egubakoitzean, zapatuan eta astelehenean

Estilo askotariko musika doan

28

egubakoitza

Heavy-zaleendako gaua izango da gaurkoa Bideberrin. Lau talde ari tuko dira txosnen gunean, gaurdik aurrera.

VALHALLA

1997an sortutako talde bizkaitarrak *Nightbreed* azken diskoa aurkeztuko du Bergaran. Javi Patxa Navarro (ahotsa), Chefy (baxua), Xabier Coto (gitarra) eta Ivan Corcuera (bateria) osatzen dute taldea. Zuzeneko emanaldietan berebiziko indarra duen taldea da Valhalla. Besteak beste, gonbidatutako artista onenaren saria eskuratu zuten Bilbao Hiria Lehiaketan,

2000. urtean. Orduetik hona oihartzun handia lortu du taldeak, baita nazioartean ere. *Once upon a time* diskoarekin arrakasta nabaria lortu zuten. Besteak beste, Iron Maiden taldearendako lan egiten duen Derek Riggs azal-egile ezagunak egin zien disko horretako azala.

RED WINE

Logroñotik etorrira, Red Wine izena primeran dator-kie. 2001ean kaleratu zuten beraien lehenbiziko diskoa, *Hijos del despertar*. Kritikaren arabera, heavy metal tradizionala ahots melodi-koekin eta soinu freskoarekin primeran konbinatzen dituen taldea da Red Wine. Saxon taldearekin batera ibili ziren 2001ean, lehenengo talde gisa, alemanek Espainiako Estatu-tik egin zuten biran. Ordu-tik hona beste bi disko kale-ratu dituzte, *El fin de los tiempos* eta atera berri duten *Sueños y locura*.

LEGEN BELTZA

Legen Beltza azpeitiarrak ere Bideberrin izango ditu-

gu gaur. Taldea 1998an sor-tu zen, eta honako hauek dira kideak: Edorta (ahotsa), Ekaitz (gitarra eta ahotsa), Xanti (baxua) eta Azkue (gitarra). Baionako Gure Irratiak antolatutako Gazte Leiho lehiaketan bigarren saria lortu ostean, IZ diskoetxearekin grabatzeko aukera izan zuten, eta 2001ean kaleratu zuten *Istorio triste bat*. Taldearen azken lana Insanity da, Berrizko Lorentzo Record diskoetxean grabatutakoa, hain zuzen ere.

DOLCE VITA

Arrasateko hiru lagunek (Jorge, ahotsa eta gitarra; Xabi, gitarra; eta Valverde, bateria) eta Iñigo bergararrak (baxua) osatzen dute Dolce Vita. Euren esanetan, heavy-rock estiloa jorratzen dute, eta oraingo maketa bat plazaratu dute. Jarraitzaile ugari dituzte inguruan, eta gaur beraien zuzeneko indartsua eka-rriko dute Bideberrira. *A fuerza de rock* izenburuko abestiak taldearen estiloa ondo definitzen du.



ARTXIBOA

Red Wine taldeak *Sueños y locura* diskoa aurkeztuko du Bideberrin.


BILBAO ASEGURUAK

Zorionak bergararroi Pazkoetan!

Ibargarai 30 behea • Tel.: 943 76 08 71 • BERGARA



Errodamendu berezien, burdineria eta sistema iristakorren fabrikazioa



Jai zoriontsuak!

Royde, S. Coop. • 157 posta-kutxa • Amilaga, 9 • 20570 BERGARA
Tel.: +34 943 76 16 40 • Faxa: +34 943 76 50 75 • e-maila: rap@royde.com • www.royde.com

ROCK ERO

29
zapatua

Hardcore eta oi! gaua prestatu dute zapatuako Bideberriko rock jaialdietako antolatzaileek. Besteak beste, Ostiada Oi! Debagoieneko taldearekin batera, Ketchoop madrildarrak, Trapatoni bizkaitarrak eta Kalekumeak donostiarrak izango dira.

OSTIADA OI!

Makarro (ahotsa), Biru (ahotsa eta gitarra), Asier (gitarra), Josu (baxua) eta Vallejok (bateria) osatzen dute Ostiada Oi! taldea. Taldearen izenak argi uzten du egiten duten musikaren estiloa. Orain dela hiru urte hasi ziren elkarrekin jotzen, eta lehenbiziko maketa kaleratu berri dute, *Behin betiko* izenburuarekin.

Taldeko kideak Arrasate, Elgeta eta Bergarakoak dira eta jarraitzaile dezente dituzte. Oraintsu Jam aretoan jo berri dute. Zuzeneko kontzertuetan ikusleekin bat egitea lortzen duen taldea da Ostiada Oi!. Beraien abestien

artean *Skinhead 1969*, *Punk oi!*, *Euskadi* eta *Antifascista* nabarmen daitezke.

KETCHOOP

Alcala de Henarestik, Madrildik datorren taldea. Hardcore musika egiten dute, eta dagoeneko lehen diskoa kaleratu dute, *Really lunch have two* izenburukoa.

Musika kritikariek taldearen indarra goraiatu dute. Umorea ere nabari zaie abestietako hitzetan, eta baita zuzeneko emanaldietan ere. Guttermouth, Bad Religion eta 7 Seconds taldeen eragina aitortu dute madrildarrek.

TRAPATONI

Trapatoni Circus Band taldea 2001ean sortu zuen Durango aldeko lagun talde batek. Itxaso, Endika, Mikel, Jorge, Zigor, Harto eta Makal dira taldeko kideak, eta disko bat plazaratu dute, *Madrilgo Working-Class* diskoetxearen eskutik. Tronpetari eta saxoari tarte egin diete Trapatoni-kideek. Euren esanetan, "haize-sekzioa ezinbestekoa da guretako. Rock, ska, reggae, salsa, blues eta jazz musika estiloetan oinarritzen dira gure erritmoak". Beraien emanaldietara joaten diren ikusleak dantzan jartzea euren helburuetako bat. *Martxa eduki eta martxa sortu*, horixe da, hain zuzen ere, beraien leloa. Zapatu gaua alaitzeko gogo biziz datoz bizkaitarrak.

KALEKUMEAK

Añorgako talde horrek zeresan ugari eman du oi! musikaren jarraitzaileen artean. Donostia aldean ezagunagoak badira ere, gurean eskualdean ere talde horrek ikusmin handia piztu du azkenaldia hontan.

Euskaraz abesten dute eta ingeles taldeen eragina nabaria da. Besteak beste, The Opressed Ingalaterrako taldea euren erreferentzia nagusiakoa izan da. Hain zuzen ere, oi! zirkuituetan Euskal Herriko *opressed* bezala ezagutzen dituzte. Zapatuan gauean Bergarako jaietan ikusteko aukera izango da.



Argazkian, Ostiada Oi! taldeak Elgetako gaztetxean emandako kontzertu bateko irudia.



Argazkian, Trapatoni taldeko kideak.




Tronpetek eta saxoak ukitu berezia ematen diete Trapatoniri.

INDUSTRIAS
BEGU S.A.

Doitasun-dekoletajea

Tel.: 943 76 21 93 - 943 76 72 72 Faxa: 943 76 04 24 • OSINTXU BERGARA
• E-mail: begu@gruporecyde.com

GRUPO RECYDE

0828/1999
ISO 9001/2000Ondo
pasau
jaixetan!**TORBER**ZORIONAK
BERGARAR
GUZTIO!!

ROCK ERO

31
astelehena

Bergarako Supercools eta NCM taldeen batera Pin Pan Pun Band eta Arima Beltza izango ditugu astelehenean Bideberrin. Askotariko musika estiloak biltzen dituen musika jaialdia.

ARIMA BELTZA

Blues&rocka egiten duen Elgoibarko taldea. Jon Gurrutxaga (ahotsa), Aitor Badiola (gitarra eta ahotza), Lander Trinidad (gitarra), Iñigo Araujo (baxua),



DANI BLANCO

Arima Beltza taldek *Blues sustraia* lana kaleratu berri du.

Joseba Alonso (harmonika) eta Elur Arrietak (bateria) osatzen dute Arima Beltza.

Lehenbiziko kontzertua 1998ko abuztuan eman zuten, Soralueko gaztetxean. Orduz gero, Euskal

Herrian barrena makina bat emanaldi egin dute, eta dagoeneko bi disko kalera-tu dituzte. Hain zuzen ere,

Blues sustraia dugu beraien azken lana. Euren abestiez gainera, Cream, Led Zepelin, Freddy King eta Rory Gallagherren abestiak jotzen dituzte zuzeneko emanaldietan.

PIN PAN PUN BAND

Besteak beste, Iñaki Maniega tronpetea jotzaile bergararra dugu Pin Pan Pun Band taldeko kidea. Etsaiak taldeko Auok eta Chanul mexikarrak taldea sortzeko lehen urratsak eman zituzten 2002ko irailean. Gaur egun hamalau lagunek osatzen dute taldea, eta bi disko kaleratu dituzte dagoeneko. Punkaren, musika latindarraren eta technoaren arteko fusioa egiten dute eta jai giroa da nagusi euren emanaldietan. *Munduaren bestaldetik* eta *Kuba libre desde Mutriku* kantuekin, besteak beste, ederto pasatzeko auke-

ra izango dute Bideberrira gerturatzen direnek. Girorik ez da falta izango Pin Pan Pun Band taldearekin.

NCM

Bergarako taldeak lagunuen aurrean jotzeko aukera izango du astelehenean. Zuzeneko emanaldietan ez dira kikiltzen diren horietakoak.

SUPERCOOLS

2000n Bergaran sortutako taldea dugu Supercools. Aitor (ahotsa), Gaizka (gitarra), Elor (baxua) eta Iker (bateria) dira taldeko kideak. Hardcore zaharraren ildotik mugitzen den talde gazte horrek Euskal Herriko hainbat eszenatoki zapaldu ditu azken urteotan, eta jarraitzailek ez zaio falta. Beraien influentzia nabariak beharbada 1980ko hamarkadako hardcore punk taldeenak dira.

Kontzertua gaur, gaztetxean

EGUBAKOITZA, 28

Gauerditik aurrera Drakess, Pateando Porkeria eta Sin Oficio ni Beneficio taldeen kontzertuak izango dira gaztetxean. Kontzertua amaitutakoan, rock-and-roll gaua ospatuko da, hau DJ Belasen eskutik izango da.

DOMEKA 30

Cool Panic taldea, Elebators eta Brigada Criminal taldeak izango dira txosna-gunean, 23:00etan hasita.



Irudian, Anathema Liverpooleko taldea.

Domekan, Anathema Jam-en

EGUBAKOITZA, 28

Fito&Fitipaldis Jam aretoan, 22:00etan.

ZAPATUA 29

DJ festa Jam-en, gauerdian. Sarrerak 15 euro balio du.

DOMEKA 30

Anathema eta Autumnal taldeak izango dira domekan Jam aretoan, 21:00etatik aurrera. Anathema taldeak *A natural disaster* bere zazpigarren diskoa aurkeztuko du. Sarrerak 20 eurotan daude salgai.

BANAKETAK
ORIXONDO

Tel.: 943 76 28 81
BERGARA

Espezialitateak:

- Urdaiazpiko iberikoak
- Paletak
- Kordobako urdaiazpikoak
- Solomoak

- Aditiborik gabeko txorizoa (Alejandro)
- Errioxako urdaiazpikoak (Los claveles)
- Erriberako esparragoak
- Pikillo piperrak
- Guardiako Luis Alegre ardoak

Jai zoriontsuak izan ditzazuela!

Zuber®



Zuber

- Metal gogorrezko erramintak ZB®
- Hotzeko estanzazioareko metal gogorrezko matrizea®

Tel.: + 34 943 76 26 78
Faxa: + 34 943 76 56 79
www.adeqi.es/zuber

Leizeaga kalea 8
112 posta-kutxa
BERGARA

Zorionak
bergararroi!

ELKARRIZKETA XABIER SALDIAS EGAN TALDEKO ABESLARIA

“Gurasoengandik askatzean, gazteek gurekin ere apurtzen dute”

EDU MENDIBIL

Xabier Saldiasek 34 urte daramatza Egan taldearekin, plazarik plaza. Eta urria bitartean ehun bat emanaldi daukate Euskal Herri osoan. Hala, Pazkoetan, martitzenean izango dira San Martin plazan, 22:30ean, hain zuzen ere.

Dagoeneko, zenbat emanaldi egin dituzu Eganekin?

Uffff!!! Auskalo, mutil! Atera kontuak: 34 urte daramatza eta garai baten urtean 200 emanaldi egin genituen. Gaur, berriz, 100 ematen dituen, kapitain jeneral. Hala ere, hor ibiltzen gara. Ez dakit, 5.000tik gora emanaldi izango dira guztira.

Hasieratik hona zertan aldatu dira erromeriak?

Lehen, 18 urtetik 30 urtera bitarteko gazte asko etortzen ziren. Gaur egun, berriz, haurrak eta nagusiak dira nagusi. Haurrak gurekin hasten dira, baina gurasoengandik askatzen hasten direnean, gurekin

ere apurtzen dute. Bizitzaren zikloa izango da agian.

Eta Egan zertan aldatu da?

Garai berrietara egokitu behar izan dugu gure ikuskizuna. Gaurko ikusleek, kantarako baino gehiago, dantzarako grina daukate eta haiei zuzendutako ikuskizuna prestatu dugu. Bateria eta baxuaren ordez, Koldo Tarragona dabil teklatu elektronikoarekin eta, horrez gain, bi dantzari ditugu, Jaione eta Rosi. Gu ikustera etortzen direnak dantzan jartzen saiatzen gara.

Zelako errepertorioa duzue?

Denetik pixka bat. Errepertorioa dantzara zuzenduta dago gehienbat, gure dantzariek beraien trebezia agertzeko, hain zuzen. Errepertorioa ludikoa da, saltseroa. Hala ere, betiko kantuei ere egin diegu tartea.

Behin batian Loiolan ez da falta izango, ala?

Eeeeeez!!! Gure marka da kantu hori. Oraindik ere jende batek eskatzen digu. Gure klasikoetako bat da, zalantzarik gabe.

Zenbat bikote maitemindu dira zuen dantzaldietan?

Asko. Aurreko baten,



ARTXIBOA

Tolosan, senar-emazte batzuek hori esan zidaten, gure dantzaldi baten elkar ezagutu zutela. Eta halako asko izango dira. Bergaran ere asko jotakoak gara:

Ariznoa diskotekan, Txibiston, frontoiko jaialdietan, plazan... Han ere bikote askok ezagutuko zuten elkar. Batzuk gustura egongo dira, beste batzuk ez

hainbeste... Horren erantzule ez gara egiten (barre).

Seme-alabak eta joaten zaizkizu dantzaldietara?

Alaba zaharrenak 14 urte ditu, eta adin horietan

telebistan azaltzen denak agintzen du. Telebistan entzuten duten guztia ona iruditzen zaie, ez daukate irizpiderik ona edo txarra den esateko.

Eta zein da alabari oparitu diozun azken diskoa?


Betizu-rena. Niri gustatzen zaidan musikak alabari ez dut uste grazia handirik egiten dionik.

Zeintzuk dira zure talde faboritoak?

Ni aspaldiko musika-rekin geratu naiz. Gaztetan hasi ginenean Beatles taldearekin erabat txoratu ginen eta berdin jarraitzen dut. Queen ere izugarri gustatu zait betitik. Bi horiek izango lirake nire talde faboritoak. Baina beste asko daude: John Denver, Eagles, Benito Lertxundi, Mikel Laboa...

Kanturen bat aukeratzekotan?

Melodia eta polifonia dauzkaten kantuak atsegin ditut. Esate baterako, Queen taldearen *Bohemian rhapsody* zoragarria iruditzen zait. Hori kantatzea izan da nire ametsetako bat, baina oso zaila da. Beatles taldearen *Let it be* ere nire faboritoren artean dago.



Kalebarren instalazioak SM

- Proiektuak
- Instalazioak
- Gasaren mantentze-lanak
- Berogailua
- Aire girotua
- Iturgintza lanak

Bidekurutzeta 31 behea
Tel.: 943 76 11 67 BERGARA
E-mail.: kalebarren@inicia.es

Tel.: 943 75 23 07 SORALUZE
944 75 99 60 DEUSTO


JAI ZORIONTSUAK
GUZTIOI!

Marra batek iragana eta etorkizuna bereizten ditu.
Ausartuko zara hura zeharkatzen?



Batez besteko kontsumoa: 5,5 - 8,5 l/100 km. CO2 isurpena: 149 - 203 g/km

ALTEA Berria. Zeharkatu marra.



TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 Bergara Tel.: 943 76 12 50 Faxe: 943 76 47 51





Sinpletasunaren xarma.
Txikitasunean handi.



Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxa: 943 76 70 58



- Gosariak
- Bokatak
- Egunkariak

- Bertako opilak
- Kafetegia
- Terraza

EGUNERO GOIZEKO 06:30ETIK ZABALIK

ONDO PASAU JAIXAKI!

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Obradorea:
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

PAZKOETA



+



JAI GIRO JATOR

TAN ERE...



=

ZUNBELTZ
ZERNAI
ARIZNOA
EUXEBIO II
IRRINTZI
SIRIMIRI
FRONTOIA
MITOR GARAGARDOTEGIA
KORTAZAR
USOA
KAYAK
OILAGORRA
TITO'S
IRISH PUB GALWAY'S

ORRA GEUREAN

ederTU

Erakusketa aldaketa dela eta,
ekainetik aurrera dena **ERDI PREZIOAN.**

Koltxoietan %25eko deskontua

Barrenkaleko dendan bakarrik

Jai zoriontsuak bezero eta herritar guztioi



AGIRRE
HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre odontologoak,
Gotzone Arkarazo higienista
eta Silvia Romero harreragilea

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Implanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai 9, 1-B. BERGARA
943 76 00 23
09:00-13:00 eta 17:00-21:00

Ondo pasau Pazkuak!



MUSIKA

Mariachi Garibaldi, Mexikoko doinuak astelehenerako

Mexikarrek kalejira egingo dute eta jarraian kontzertua emango dute Espoioian, 12:00etan

San Martin plazan
Zapatua
23:30 Tarantella
Domeka
23:00 Joselu Anaiak
Martitzena
22:30 Egan

EDU MENDIBIL

Mariachi Garibaldi taldeak Mexiko aldeko doinuak ekarriko ditu astelehenean. Kalejiraren ostean, emanaldia egingo dute Espoioian, eguerdiko hamabietan hasita.

Mexikoko hiriburuko Garibaldi plaza mariachi taldeen topaleku dugu. Mariachi Garibaldi taldeak han entzun daitezkeen rantxerak, polkak, boleroak, corridoak, eta abar ekarriko ditu Pazko-eta astelehenean gure herrira. Goizean, 11:30ean, kalejira egingo dute herriko kaleetan barrena eta jarraian kontzertua emango dute Espoioian, 12:00etan hasita.



Argazkian, Mariachi Garibaldi taldeko kideak. Astelehenean Bergaran izango ditugu.

ARTXIBOA

chien ohiko jantziarekin, astelehen goizeko giroa pizten saiatuko gara. Gure herrian esaten dugun moduan, gure musika *bravilla* da, parrandarako aproposa. Aldi berean, *mariatxion* musika erromantikoa da, eta ikusi besterik ez dago gure herrialdera datozen turistaren artean betidanik izan duen harrera. Jendea berehala maitemintzen da gure musikarekin, zerbait berezia dauka". Beraien musika laguntzeko tekila aproposa jotzen dute: "Jendeak Euskal Herrian-eta garagorako joera handiagoa du, baina mariachien eta tekilaren artean lotura handia dago. Bata bestearekin lagunduta badator, askoz hobeto".

ZAZPI MARIACHI

Zazpi lagunek osatzen dute Mariachi Garibaldi taldea: Fabian eta Marcos (biolina biek ere), Fernando (tronpeta), Paul (*gitarra* delakoa, Mexikoko instrumen-

tu autoktonoa), Juan Carlos (vihuela), Leonardo (ahotsa) eta Cesarrek (tronpeta). Taldeko kideak Tijuana, Jalisco eta Mexiko hiriburukoak dira eta orain dela lau urtetik Madrilen

Zazpi lagunek osatzen dute Mariachi Garibaldi, eta rantxera, corrido eta abarrekin alaituko dituzte herriko kaleak

bizi dira. Europa osoan jo izan dute eta Euskal Herrian ere izan dira, Sondikan, Donostian eta Gasteizen, besteak beste. Cesar Enrique Morales tronpeta jolearen esanetan, "maria-

JAIETAKO DANTZALDIAK

Bestalde, astelehen gauean Nueva Etapa taldearen emanaldia izango da Espoioian, 23:00etan. Gainerako dantzaldiak San Martin plazan izango dira, zapatuan (Tarantella taldearekin), domekan (Joselu Anaiak) eta martitzenean (Egan).


PASCUAL
TELEKOMUNIKAZIOAK

Arrasate 4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.



Ibargarai 5 BERGARA
943 77 70 14 Faxe: 943 77 70 16
bergara@pascualalzuri.com

Liderrak
telefonía mobilean



Banataile ofiziala



Nereea

Lentzeria • Kortse-denda • Bainujantziak

Simon Arrieta plaza 1 Tel.: 943 76 19 52

Ondo pasau
jaixak!



TXOSNAK

Herri Mugimenduak antolatu du aurtengo txosnetako egitaraua

Egitarau zabala prestatu du Herri Mugimenduak Txosna batzordearendako; txosna-gunean eta gaztetxean izango dira ekitaldiak aurten. Iaz egin zuten moduan, aurten ere bi txosna eta karpa erraldoi bat jarriko dituzte Bideberrin, eta eguneko 24 orduetan zabalik egongo dira.

AINTZANE IRIZAR

Azkeneko lau urteotan bezala, Pazkoetarako egitarau zabala prestatu du Txosna batzordeak. Aurten ere bi txosna eta karpa erraldoi bat jarriko dituzte.

Txosna batzordea 2000. urteko Pazko-
ei begira sortu zuten herriko hainbat kolektibok. Batzordearen helburua zen jaietan herritarren eta kolektiboen parte-hartzea bultzatzeko marko egoki bat sortzea, denen artean herriko jaiak herritarrago egiteko egitaraua osatzea eta batzordeko kolektibo bakoitzaren aldarrikapena kalera eramatea.

Lau urte pasatu diren honetan, helburu berberak dituzte Txosna batzordeko kideek, eta euren esanetan, azkeneko urteotako helburuak betetzen doaz.

HERRI MUGIMENDUAREN LANA

Txosna batzordea txosnen azpiegituraz bakarrik arduratu da aurten; hau da, txosnak errentan hartzeaz, muntatzeaz... Egitaraua prestatzea Herri Mugimenduaren ardura izan da aurten, eta *Bideberrin jai-xa... eta aldarrikapena* lelopean antolatu dute egitaraua. Iaz sortu zuten Herri Mugimendua izeneko taldea herriko hainbat taldek eta kolektibok; talde hori sortzearen helburua zen herri bizi eta parte-hartzailea lortzea.

Txosna batzordea jaietarako bakarrik osatzen den batzorde bat den bitartean, Herri Mugimenduak urte osoan jarduten du lanean. Sortu zenean, hamabostaldi kulturala antolatu zuten, eta iazko Gabonetan ere ekitaldi sorta mardula eskaini zuten.

Zazpi taldek osatzen duten aurten Txosna batzordea: Euskal Herrian Euskaraz, AEK, Batasuna, Segi, Ikasle Abertzaleak, Bai Eus-



Txosna batzordeko kideek prentsaurrekoa egin zuten aurreko astean, egitarauaren eta berritasunen berri emateko.



NATUR HOUSE

Nutrizioa eta dietetika



Dieta pertsonalizatuak • Kontsultak doan

Leire Perez Sampedro

Biologia Zientzietan lizentziaduna
eta Dietetika eta Nutrizioan espezialista.

EZ ITXARON LUZAROAGO, PRESTA ZAITEZ UDARAKO

Simon Arrieta 3 • Tel.: 943 76 48 56 • BERGARA



ARATZ

ALBAITARI KLINIKA

Aratzek jai zoriontsuak
opa dizkie bezero guztiei

Zurradero 6, behea
Tel.: 943 76 70 67 poltsikokoa: 607 48 71 19

TXOSNAK



Karpa erraldoi bat eta bi txosna jarriko dituzte Bideberrin, iaz bezala.

ARTXIBOA

kal Herriari, Txapa Irratia eta Presoen Lagunek, hain zuzen ere.

Herri Mugimenduan, berriz, aipatu ditugun Txosna batzordeko partaideez gain, *Astindu* fantzinea eta Gazte Asanblada ere badaude.

Aurtengo beste berritasunetako bat da ekitaldi guztiak ez direla txosnagunean, izango; ekitaldietako batzuk gaztetxean izango dira. Aurreko urteetan ere hainbat ekitaldi antolatu ditu Gazte Asanbladak gaztetxean, baina aurten, Txosna batzordearen egitarauan bateratu dituzte guztiak.

BI TXOSNA ETA KARPA BAT

Bideberrin bi txosna eta karpa erraldoi bat jarriko dituzte aurten ere. Iaz ekin zioten berritasun horri.

Horrela, txosna bakoitza ez da kolektibo batena izango; denak izango dira denak, eta hiru txosnetan batzen duten dirua talde guztien-

dako izango da. Txandak ere guztien artean antolatu dituzte, eta talderen batek txandak betetzeko arazoak baldin badauzka, besteek

lagunduko diote. Elkarlana da batzordearen oinarria. Bestalde, aipatzekoa da eguneko 24 orduetan egongo direla zabalik txosnak.

KONTZERTUAK, BI EGUNEAN

Aurten bi egunetan izango ditugu kontzertuak, guztira, sei musika talderekin. Jaietako lehenengo egunean bertan, egubakoitzean, gaztetxean izango dugu kontzertua, Drake, Pateando Porkeria eta Sin Oficio ni Beneficio taldeen eskutik. Domeka gauean izango da beste kontzertua, txosnagunean, beste hiru talderekin: Cool Panic, Elebators eta Brigada Criminal taldeekin, hain zuzen ere.

Interneten Txosna batzordearen egitaraua eskuratzeko aukera dago; oraingo honetan, www.astindu.org webgunean.

Txosnen guneko egitaraua

EGUBAKOITZA 28

19:30: Perkusioz alaitutako KALEJIRA, gaztetxetik abiatuta.

20:30: Txosnen irekiera ekitaldia:

txalapartariak, etxafuegoak, bertsolariak eta pregoia.

22:30: DROGA ANALISIAK gaztetxean, Ailaketen eskutik.

00:30: KONTZERTUA gaztetxean:

Drakess, Pateando Porkeria eta Sin Oficio ni Beneficio taldeak. Ondoren, rock-and-roll gaua, DJ BELASen eskutik.

20:00: Presoen aldeko MANIFESTAZIOA egingo dute, San Martin plazatik abiatuta.
03:00: DJ BULL, txosna-gunean.

DOMEKA 30

10:00: TXOKOLATE JANA, txosnagunean.

23:00: KONTZERTUA txosna-gunean: Cool Panic, Elebators eta Brigada Criminal taldeekin.

ASTELEHENEA 31

18:00: BALSA-JAITSIERA, Torrekua paretik Bideberriraino. Ondoren, sariak banatuko dituzte.

19:30: BERTSO POTEOA, txosna-gunetik abiatuta. Xabier Silveira, Jokin Uranga eta Fredi Paya bertsolariek parte hartuko dute.

ZAPATUA 29

18:00: Kolektiboen MURALAK jarriko dituzte txosna-gunean.

18:30: TRIKI POTEOA, txosna-gunetik abiatuta.

Droga analisiak, gaztetxean

Hirugarren aldiz antolatu dute aurten droga analisiak egiteko zerbitzua. Gazte Asanbladaren ekimena izan zen, orain dela bi urteko jaietan. Aurten, berriz, Udalaren laguntzarekin batera antolatu dute, Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietarako Zuzendaritzak era horretako ekimenak bultzatzen ditu eta. Ailaket taldeak egingo ditu analisiok gaztetxean, egubakoitzean, 22:30ean.

Zerbitzu horren helburua da droga kontsumitzaileek jakin dezatela zer hartzen duten; kontua da legez kanpoko drogek ez dutela inolako kontrolik pasatzen,

eta askotan, egoera txarrean dauden sustantziak hartzen ditugula, eta beste askotan, berriz, sustantzia bat erosten dugulakoan, beste zerbait saltzen digutela. Azken baten, jendeak drogen kontsumo arduratsua egin dezala lortu nahi da, eta horrela, droga horiek sor ditzaketan arazo eta arriskuak txikitzea. Sustantziaren konposizioaren gaineko informazioa emateaz gain, drogen gaineko informazio zerbitzua ere eskaintzen dute. Iaz, 80 lagunek erabili zuten zerbitzua, eta 29 test egin zituzten.



Ondo pasau
Pazkoetan!

- ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK • BERO AKUMULADOREAK • KOMERTZIO ETA ETXEETARAKO MEGAFONIA
- ATEZAIN ELEKTRONIKO ETA BIDEO-ATEZAINAK • SEGURTASUN SISTEMAK • ARGIKUNTZAN ESPEZIALISTAK

URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA

Tallerra eta erakustokia: A. Fleming 11. Tf eta faxa: 943 76 28 05 • Etxeko helbidea: Irizar 3. Telefonoa: 943 76 26 32



**Sukaldeak. Horma armairuak.
Neurrira egindako altzariak.
Ateak eta leihoak. Arozlanak.**

BERGARA Tel.: 943 76 58 86 / 670 765 886

Mentekoste jai zoriontsu eta alaiak guztioi!

HERRI BAZKARIA

Jaiak amaitzeko herri bazkaria San Martin plazan

Xamatz Dantza Taldea eta Jardun Elkartea arduratu dira bazkaria antolatzeaz

IRATI AGIRREAZALDEGI

Jaiak modu alaian amaitzeko herri bazkaria antolatu dute Xamatz Dantza Taldeak eta Jardun Euskara Elkartek. Martitzenean izango da bazkaria San Martin plazan.

Martitzenean, ekainaren lehen, jaietako azken eguna izango da. Egun horretarako, oraindik indartsu eta jai gogoz daudendako herri bazkaria antolatu dute Xamatz Dantza Taldekoek eta Jardun Elkartekoek.

Bazkaritara girotuta joateko, ordu batean triki-poteoa hasiko da Pol-Pol tabernatik, Xafre eta Zaharra eta Josu eta Jokin trikitilariekin.

Eguraldiak laguntzen badu bazkaria San Martin plazan egingo da, 14:30ean; eta bestela, Seminarioko patioan.

Bazkaritarako honako menua gertatu dute: maka-



Eguraldiak laguntzen badu plazan izango da bazkaria; bestela, Seminarioko patioan.

rroiak, koxkorra txanpinoiekin eta hostorezko pastela. Hori guztia ardoz eta sagardoz bustia. Bazkalostean, kafea eta kopa hartu ondoren, koadrilen arteko jokoak egongo dira.

Bazkalostean, kafea eta kopa hartu ondoren, koadrilen arteko jokoak egongo dira San Martin plazan bertan.

Koadrila bakoitzak bertsoan, kantuan, zaku karreretan, lokotx-biltzean... jardungo du.

Guztia amaituta Iraunkorrek txarangarekin kalejira egongo da.

Herri bazkariko egitaraua

13:00: TRIKI POTEOA
Pol-Pol tabernatik abiatuta: Xafre eta Zaharra eta Josu eta Jokin trikitilariekin.

14:30: BAZKARIA
Herri bazkaria San Martin plazan. Euria eginez gero, Ikastolako seminarioko patioan.

16:30: JOKOAK
Koadrilen arteko lehiaketa: bertsoak, kantuak, zaku karrerak, lokotx-biltzea...

Ondoren, **KALEJIRA**
Iraunkorrek txarangarekin.

Bazkarirako txartelak 13 eurotan daude salgai Kortazarren, Pol-Polen eta Arranon. 180 lagunendako lekua dagoenez, txartelak lehenbailehen hartzea gomendatu dute.

J.M.IPARRAGIRRE B.H.I

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
ERIZAIN LAGUNTZAILEA
OSASUN ADARRA, A ETA D EREDUETAN

TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Lehen sorospenetarako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Zaharren egoitzetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

IZEN EMATEA: ekainaren 1etik 9ra arte



J.M.IPARRAGIRRE B.H.I

Santa Barbara bidea z/g 20700 Urretxu • Tel: 943 72 14 13 • Faxa: 943 72 14 03
Posta elektronikoa: jniparragirre@edunet.es

TELAETXE


Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku

Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara
zabalik

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK



IRURAK MARGOAK

DISEINUAUAK SM

Era guztietako lanak
Moketa eta sintasola
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak
Harea zorrotada
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta-kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

SOLAR-CHECK
Tuning

NOBEDADEA:
Eguzkitik babesteko laminak!
Baita koloretan ere!

IBILGAILUENDAKO KRISTALAK


Autobus / Kamioi / Turismo / Furgoneta

Muntatzea • Salmenta • Konponketa

DESA CRISTAL

943 76 36 09 Bergara • 943 69 16 16 Irura

Ondo-ondo pasatu jaietan...



Jai zoriontsuak izan ditzazuela guztiok

BULEGOA Tel. eta faxa: 943 76 47 00

TABERNA Tel. 943 76 49 33

San Pedro 4, BERGARA

JAIK

San Esteban bisitatzeko eguna domekan

Mendekoste-domeka ospatzeko meza izango da Elorregiko ermitan, eguerdian

EDU MENDIBIL

Mendekoste-domeka ospatzeko meza izango da domekan Elorregiko San Esteban ermitan. Ondoren, salda eta jatekoak izango dira bertaratuendako.

Ola auzotik gora, Ipiñarri baserriaren ondotik igaro eta gero, 20 bat minutuko ibilaldia dago San Esteban ermitaraino. Ermita XVII. mendekoa da eta Elkorobarrutia baserriarena da. Bertako Jose Mari Muxika eta Angela Alberdi senar-

emazteek zaintzen dute ermita.

SALDA ETA JATEKOAK

Garai baten Pazko-astelehenean ospatzen zen San Estebango jaiak. Azken 17 urteotan, berriz, Mendekoste-domekan egiten da San Esteban Elkoartiko jaiak. Lehenbizi etxafuegoak jaurtiko dituzte eta eguerdiko hamabietan meza esango du Karlos Ostolaza abadeak. Nagusiki, Elorregi, Labegaraia eta Zubiaurre aldeko jendea joaten da urtero-urtero San Estebanera. Laurogei bat lagun elkartzeko dira domekan. Guztiondako, salda eta jatekoak izango dira mezaren



JOSU OKINA

San Esteban Elkoartiko jaiak 80 bat lagun elkartzeko dira azken urteotan.

ostean. Eta, ohikoa denez, Josu Okinak jardungo du txistuarekin, giroa alaituz.

XVII. MENDEKO ERMITA

Esan bezala, San Esteban ermita XVII. mendekoa da.

Antza, Martin Perez de Elkorobarrutiak ermita eraikitze baimena eskatu zion Kalagorriko apezpikuari 1658an. Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan jasotakoaren

arabera, Don Ignacio de Askarraunz apaizak ermita bedeinkatu eta lehen meza esan zuen 1658ko abenduaren 10ean. Pedro Jose Egurennek ermitaren jatorria aztertu du. Eguren-

nek dioenez, ermitaren zati bat erori ondoren, berriro altxatu behar izan zuten eta Bernardo Gallastegi Olaso Santa Marinako abadeak ermita bedeinkatu zuen 1718ko abenduaren 19an.

Motorola C550

55

euron aurera kameradunak

Kontratu eskaintza harrigarriak!!!

alta eman KUOTARIK GABE

* BEZa barne Hautespén Bezeroentzako eta Euskaltel Leihoa dutenentzako. Eskaintza balagarria 04/06/01era arte eta 100 unitate agortu arte.

Ibargarai Hiribidea 20
20570 Bergara
Tel.: 943 769 458

Pcphone21

Banataile Ofiziala:

Euskaltel

BELMEK


DO
certificación
E.R. 02/591
ISO 9001/00
ENAC-ek hermatua

Telleria 19, B-5
BERGARA

Tel.: 943 76 94 60
Faxa: 943 76 92 81
belmek@belmek.com
www.belmek.com

DOITASUNEZKO
MEKANIZATUAK

Zorionak Bergararroi!



TELEBISTA

Jaien gainekeo saio bereziak GOITBn

Martitzeneko albistegia Bergaran grabatuko dute eta jaien gainekeo saio berezia ere egingo dute

AINTZANE IRIZAR


Aurten ere Deba-
goien osora zabaldu-
ko du GOITBk Pazko-
en berri. Hala, marti-
tzenean Bergarako
jaiak izango dira
ibarreko telebistaren
gai nagusi.

Ibarreko telebistak ez du hutsik egingo aurtengo jaietan ere. GOITBk bertatik bertara bizi izango ditu Pazkoak eta ibarreko herri guztietara zabalduko du jai horien berri. Horretarako, saio bereziak eskainiko dituzte martitzenean eta eguaztenean.

ALBISTEGI BEREZIA

Alde batetik, urtero moduan, albistegi berezia grabatuko dute. Martitzenean izango da hori, San Martin plazan, eguerdi aldera.

Bi zati izango ditu albistegiak: lehendabiziko zatia ohikoa izango da, hau da, egunean barrena ibarreko herrietan gertatu diren berriak jasoko dituzte; bigarren zatia, berriz, Bergarako jaien gainekeo izango da: erreportajea eta hainbat elkarrizketa egingo dituzte. Jaiekin lotutako albistegi berezi hori 14:30ean eta 20:00etan eskainiko digute Goiena Telebistan, martitzenean bertan.



Aurten ere Bergaran grabatuko dute martitzen eguerdiko albistegia.

Martitzen eguerdian Bergaran grabatutako albistegi berezia ikusi ahal izango dugu GOITBn

JAIK 2003

Horrez gain, *Jaiak 2003* izeneko saio berezia ere eskainiko digute Goiena Tele-

bistan. Mendekoste jaietako ekitaldi nagusienetan eta kaleko giroa jasotzen jardungo dute jaietan, egu-

bakoitzetik martitzenera bitartean.

Osagai horiekin guztiekin saio berezia prestatuko dute eta martitzen iluntzean, jaietako azkeneko egunean, alegia, ikusi ahal izango dugu jaien gainekeo saio hori GOITBn, 21:00ak aldera, 20:00etako albistegiaren ondoren, hain zuzen ere.

DANTZA TXAPELKETA

Domekan jokatu duten Euskadiko Dantza Txapelketa ikusteko aukera ere eskainiko digu GOITBk, eguaztenean, hilak 11, 20:30ean, iluntzeko albistegiaren ondoren.

Arratsaldeko finala grabatuko du GOITBk, eta eguaztenean emitituko du.

San Martin plazan

Martitzen eguerdian

Bergaran grabatuko du martitzeneko albistegi berezia Goiena Telebistak

GOITB Mendekoste jaietan

EKAINAK 10

14:30:

ALBISTEGIA


Arratsaldean, 20:00etan, hain justu, eguerdian grabatutako albistegi berezi hori errepikatu egingo dute.

21:00:

'JAIK 2003'

SAIO BEREZIA

Mendekoste jaien gainekeo saio berezia eskainiko digute. Jaietan izandako ekitaldi nagusienak eta jaietako giroa batuko dituzte saio berezi horretan.





San Juan auzoa z/g 151 Posta kodea
BERGARA • 943 76 90 04

**PROFESIONALITASUNA,
GAS BEROGAILUEN EKOIZPEGINTZAN**

1997ko irailean, Bergaran Geyser Gastech Teknologi eta Ekoizpen Zentrua sortu zen.

Gure bezero, lankide eta eskualde honetako jende oro agurtu nahi ditugu.





Instalakuntza moderno eta guztiz erosoekin, gure bezeroek merezi duten kalitatezko zerbitzua eskainiz.

ZORIONAK GUZTIOI!

Ariznoa

HOTELA

Telefona Aranzadi, 3

Tel. 943 761 846 - 943 761 847 Faxa: 943 761 848

20570 BERGARA - Gipuzkoa



ONDA

janari denda



Koldo Eleizalde 3 • Tel.: 943 76 43 00



San Pedro 21 • Tel.: 943 76 12 25

**JAI
ZORIONTSUAK
HERRITARROI!**



Matxiategi 7 • Tel.: 943 76 42 87



Mintegi 3 • Tel.: 943 76 36 00



**Makina
Erremintaren
Institutua**

**Instituto de
Máquina
Herramienta**

INFORMAZIOA:

Makina Erremintaren Institutua

Azkué auzoa 1 - 20870 Elgoibar

Tel.: 943 74 82 65 - 74 4132.

Faxa: 943 74 41 53

Posta elektronikoa: nekane@imh.es

www.imh.es

Eusko Jaurlaritzako
Lanbide Heziketako Ikastetxe
Publikoen sareko partaidea.



2004-2005 ikasturtea

HEZIKETA ZIKLOAK

GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industri ekipoen mantenimendua

ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa

BERRIA

- Makineria eta linea eroanbideen instalazio eta mantenimendu elektro-mekanikoa

ATE IREKIAK

Ekainaren 3an, 19:00etan




Izena emateko epea: ekainaren 1etik 9ra, biak barne



**Bergarako
udalak
jai
zoriontsuak
opa
dizkizue!**



BERGARAKO UDALA



Saunier Duval



DICOMAN S.L.

San Lorentzo 21
20570 Bergara
Laguntza teknikorako zerbitzu
ofizial baimendua
Tel.: 943 76 06 61

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

KARTELA

Mari Paz Alustizak egin du Pazkoetako programako irudia

Alustizaren lan koloretsua saritu zuen epaimahaiak; artista bergararrak 600 euroko saria eskuratu du

M.A.

Mari Paz Alustizak irabazi du Udalak antolatutako Pazkoetako kartel lehiaketa. Lan koloretsua da Alustizarena. Lehiaketako lanak Pazkoetako martitzenean izango dira ikusgai.



Mari Paz Alustiza.

Mari Paz Alustiza aski ezaguna da herrian; izan ere, bergarar askoren pintura irakaslea izan da. Hogeita bost urte baino gehiago daramatza herrian margo eskolak ematen. Ikasleengandik beraiegangandik ere asko ikasten duela adierazi du Mari Pazek behin baino gehiagotan. Nagusiki pintura figuratiboa egiten du, eta pintore impresionistak ditu gustukoak. Pintura lehiaketetan jardundakoa da Mari Paz Alustiza, eta sari ugari jaso izan ditu azken urteotan. Orain-

haiak lehen saria berari ematea erabaki zuen. Sari gisa 600 euro eskuratu ditu artista bergararrak. Iazko ekitaldian Imanol Cordovilla izan zen kartel lehiaketako irabazlea.

Udalak kaleratutako egitarauaren esku programa ilustratzeko erabili da alboan ikus dezakezuen irudia. Lehiaketara hogeitabat lan aurkeztu ziren. Lan guztiak udaletxeko arkupeetan jarriko dituzte ikusgai Pazkoetako martitzenean, 11:00etatik 20:00etara.

SIMON ARRIETA TALDEA

Bestalde, Simon Arrieta zeramika taldeko kideen lanak ikusgai dira kultur etxean, ekainaren 6ra arte. Hogeitabat lan jarri dituzte publikoarentzat ikusgai. Aste barruan arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan eguerdiko 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara izango da zabalik erakusketa aretoa.



Mari Paz Alustizak lan horri esker irabazi du Pazkoetako kartel lehiaketa.

Kartel lehiaketara aurkeztutako lanak martitzenean jarriko dituzte udaletxeko arkupeetan

Simon Arrieta zeramika taldekoen lanak ere ikusgai izango dira kultur etxean, ekainaren 6ra arte

TRADITION
Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel. 943 76 22 48

DIFFUSION
QUICK SERVICE
Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel. 945 13 47 26

DIFFUSION
Garbera ztro. kom., Garbera 1- 23 aretoa
20017 DONOSTIA • Tel. 943 39 45 86

DIFFUSION
Urbil ztro. kom., Asteasuain polig. (Txikiardi) - B7 aref.
20170 USURBIL • Tel. 943 36 08 17

DIFFUSION
Lakua ztro. kom., Wellington Dukea 6A - 05 aretoa
01010 GASTEIZ • Tel. 945 17 91 50

Love is in the Hair
Jean Louis David

Ondo pasau jaxetan!



TORREKUA



ERRETEGIA

Ibargarai 37 • Tel.: 943 76 50 99

- Batik bat arraina
- Karta
- Eguneko menua
- Goizeko 7:00etatik zabalik

ONDO PASAU DANOK!

PILOTA

Aspaldiko partez, pilotari profesionalak Udal Pilotalekuan

Hiru jaialdi izango dira Pazkoetan eta, horrez gain, Bergara Hiria txapelketako finalak astelehenean

EDU MENDIBIL

Profesional mailako hiru pilota jaialdi izango dira jaietan Udal Pilotalekuan. Era berean, Bergara Hiria txapelketako finalak jokatu dira astelehenean, 19:30ean.

Garai bateko Mendekoste FERIA urteko hitzordu garrantzitsuenetako bat bazen ere, azken urteotan Pazkoetako pilota partiduak ez dira horren distiratsuak. Bergarako Udal Pilotalekuak lehen zuen estatusa galdu egin du pilota enpresendako, zalantzarik ez. Urtean oso gutxitan egoten dira profesional mailako partiduak. Bada, pilota-zaleen gozamenerako, aurten hiru jaialdi ekarriko dituzte enpresek.

BELOKI ANIAK ELKARREKIN Zapatuan, Asegarce enpresaren pilotariak izango dira Udal Pilotalekuko kantxan. Jaialdia 17:00etan hasiko da, eta lehenbiziko parti-



Bergara Hiriko finalak astelehenean jokatu dira, 19:00etan.

duan, Tirapu-Begino eta Bengoetxea-Pinedo bikoteak arituko dira; jarraian, Olaizola Lak eta Peñagarikanok Beloki anaiak izango dituzte aurrez aurre. Ruben eta Alberto Beloki

Bergara Hiriko finalean, 22 urtetik gorako mailan, Igor Gutierrez bergararra arituko da, Huizirekin bikotea osatuz

anaiak elkarrekin ikusteko aukera polita izango da. Jaialdiarekin bukatzeko, Arbizu-mendiluze eta Azpiroz-Bengoetxea V.a bikoteen arteko norgehiagoka izango da.

BETERANOAK DOMEKAN

Frontis enpresak beste bi partidu iragarri ditu domekarako, 17:00etan: Badiola III.a-Elola/Larraia-Mendia batetik eta jarraian Alustiza-Gorriti eta Barberito VI.a-Arretxe bikoteen arteko partidua.


BERGARA HIRIA

Astelehenean, berriz, Bergara Hiriko finalak jokatu dira 19:30ean: 22 urtez azpikoetan, Olazabal-Betelu eta Etxeberria-Iza bikoteak lehiatuko dira eta nagusietan Huizik eta Gutierrezek Erroizena eta Argote izango dituzte aurrez aurre.

PAZKOETAKO MARTITZENA

Azkenik, Pazkoetako martitzenean, Aspek antolatutako jaialdia izango da, 16:30ean: Etxaniz-Zezeaga eta Kapellan-Arroyo II.a bikoteak izango dira aurrez aurre; ondoren, Titin III.a-Goñi III.a eta Gonzalez-Barriola bikoteek neurtuko dituzte indarrak eta azkenik, Berraondok eta Lascurainek Berna-Txereren kontra jokatu dute.

IRATI AGIRREAZALDEGI



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

ZABALA

JATETXEA • OSTATUA

75 urte zuekin!


Jai zoriontsuak
herritar guztioi!

- L** Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- L** Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA

Ondo pasau jaixak!



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

ZAPIAK ETA PEGATINAK

Jaietan, zapia lepoan, pegatina paparrean eta euskara ahoan

Jardun Elkarteak jaietarako zapiak egin ditu eta baita euskara bultzatzeko pegatinak atera ere

IRATI AGIRREAZALDEGI

Jardun Euskara Elkarteak aurtengo Pazkoetarako bi gauza kaleratuko dituzte: zapiak, alde batetik, eta beste batetik jaietan euskaraz egitera animatzeko sentsibilizazio pegatinak, bestetik.

Orain artean Xamatx Dantza Taldea arduratu da jaietako zapiak egin eta herritarren artean zabaltzeaz. Baina aurtan Jardun Euskara Elkarteak hartu dio lekukoa langintza horretan, eta hemendik aurrera eurek izango dute Pazkoetan jendeak lepoan eraman ohi dituen zapi urdinak gertatzeko ardura.

Bergaran erreferente den mahoi koloreko zapiak izango dira aurtan ere herritarren lepoak apainduko dituztenak.

Baina berezitasun bat edukiko dute: hizkien eta irudiaren kolorea, orain arteko zapietan zuria izan dena, hemendik aurrera, urtetik urtera, aldatzen joango dira Jardunekoak.

Aurtengorako, mahoi kolorearekin konbinatzeko, urdin argia aukeratu dute.

Asteon salgai ipini dituzte herriko taberna gehienetan. Bestalde, gaur, bihar eta etzi San Martin plazan jarriko duten mahaian ere salgai egongo dira zapiak, 2,50 euroren truke.

Gaur, egubakoitza, arratsalde eta iluntzean egongo dira plazan, 18:30etik 00:30era bitartean. Zapatuan, 11:30etik 13:30era eta 19:30etik 21:30era; eta domekan, 17:00etatik 19:00etara.

Zapiaren irudia Garikoitz Garitano bergararrak marraztu du. Bertan, Bitorianatxo dantzan irudikatu du, batetik, eta San Martin plaza, bestetik.

PEGATINAK

Jardun Elkarteak zapiet gain pegatinak ere atera ditu Pazkoetarako. Jaietan jendea euskaraz

hitz egitera animatzeko sentsibilizazio pegatinak dira horiek.

Urteak dira Jarduneko Gazte Taldeak jaietan herritarrek euskaraz egin dezaten animatzeko pegatinak ateratzen dituela.

Hasieran pegatinetako esaera edo esaldia lehiaketa bidez aukeratzeko zuten, baina mezuak duen garrantzia eta zabalpena ikusita, leloa asmatu eta aukeratzeko ardura Gazte Taldeak berak hartu zuen.

Jarduneko gazteek mezua aukeratzeko orduan ondorengo irizpideak hartzen dituzte kontuan: zuzena, ez oso luzea, indartsua, ulerterraza positiboa eta pedagogikoki zuzena izatea. Eta garrantzitsuena: herritarrek euskaraz berba egitera gonbidatu behar ditu.

Kolore horidun pegatinen gainean hizki beltzez honako leloa ipini dute aurtan: *Euskera gora, bihotzetik ahora!*. Bestalde elkartearen beraren ikurra ere agertuko da bertan.

Jaietan 5.000 pegatina banatuko dira, doan, herriko kaleetan, tabernetan, dendetan, plazan ipiniko duten mahaian...

Beraz, asko izango dira Jardunek ateratako zapia lepoan eta pegatina paparrean dutela jaietan ibiliko direnak.

Garikoitz Garitano bergararrak marraztu du jaietako zapietan Jardunekoek ipiniko duten Bitorianatxoren irudia



*Euskera gora,
bihotzetik
ahora!*

Goian, lepoko zapiaren irudia. Behean eskuman, pegatinetako leloa.

DISSOL

Banatzaile ofiziala

PRAXAIR

SOLDADURARAKO ARTIKULUAK-GASAK- PISTOLAK ETA OSAGARRIAK- HARIAK- ELEKTRODOAK-MAKINERIA

BERRIZ BILTEGIA

Eitua poligono industrialia 41B

48240 BERRIZ (Bizkaia)

Tel.: 946 82 76 06

Faxa: 946 82 65 34

BERGARA BILTEGIA

Benta berri z/g

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 76 28 97

Faxa: 943 76 50 56

Jaiak ondo pasau!

DECOLETAJES

BIOK

Prezisioneko dekoletajea era guztietako materialetan

ZORIONAK BERGARAR GUZTIOI!

Amillaga 6 • 286 posta-kutxa • 20570 BERGARA Gipuzkoa • Tel.: 943 76 53 29 • Faxa: 943 76 41 05

ELKARRIZKETA JOSU ZEZIAGA ETA JOKIN ZUBILLAGA TRIKITILARIAK

“Badira hamalau urte Pazko jaietan trikitilari hasi ginela”

AINTZANE IRIZAR

Pazko jaietan, urtero-urtero ikusten ditugu Josu eta Jokin trikitilariak kaleko giroa alaitzen: diana jotzen dute, trikitipoteoan parte hartzen dute... Kontatu digutenez, badira hamasei urte elkarrekin trikitilari hasi zirenetik.

Noiztik diharduzue elkarrekin trikitilari?

Josu: Hamasei bat urte dira elkarrekin hasi ginela; Pazkoetan, berriz, orain dela hamalau urte hasi ginen.

Horrenbeste urtean jarduteko, ondo konponduko zarete, ezta?

Jokin: Bueno, ez pentsa! Zelanbait lan bezala hartzen dugu trikitilari jardutea, eta beste edozein langilek lankideekin izan ditzakeen arazoak izaten ditugu guk ere. Dena dela, trikitilari ez gabiltzanean ere askotan irteten gara elkarrekin Josu eta biok.

Diruagatik jarraitzen duzue, hortaz; zuendako lana da trikitilari jardutea.

Jokin: Bai, bai, hori argi dago. Nik dagoeneko ez daukat aparteko zaletasunik; Josuk, bai, Josuk zaletasun handiagoa dauka.

Josu: Zaletasunagatik hasten zara honetan, baina, denborarekin, zaletasuna ofizio bihurtzen da.

Trikitilari izateaz aparte, beste talde batzuetan ere ibilitakoak zarete biok.

Jokin: Bai. Biok elkarrekin ibili gara, gainera, talde gehienetan: Koska, La Parranda, Basque Country eta beste talde batzuetan ibili ginen elkarrekin. Nik Antzuolako Korkoil taldearekin ere jardun nuen.

Josu: Bai, baina hori guztia lagata daukagu. Ez da batere erraza talde bat aurrera ateratzea; denbora behar duzu, taldekide guztiak bat etortzea ordutegiarekin... Lan nekeza da, benetan.

Urteko egutegia egin da izango duzue, ezta?

Josu: Bai, urtero antzerakoa izaten da: Bergarako jaiak, Labegaraietako jaiak, Antzuolako jai batzuk, San Blas jaiak...

Dena dela, dena ez da lana izango jaietan. Parranda-zaleak zarete?



Argazkian, ezkerrean Jokin eta bere eskuman Josu soinu jotzaileak.

Jokin: Bai, beharbada, gehiegizko parranda-zaleak izan gara; orain, berriz, gero eta gutxiago.

Josu: Garai baten, askotan joaten ginen kalejirara zuzenean, gaupasa eginda;

orain, besterik ez bada ere, oheari zapaldu bat egin eta gero joaten gara.

Zer nahiago duzue, soinuarekin eta panderoarekin ibili ala barik?

Jokin: Barik; gainera,

pazientzia handia behar da trikitilari ibiltzeko; jaietan badakigu jende asko zela ibiltzen den eta ni, behintzat, konturatzen naiz gero eta pazientzia txikiagoa daukadala.

Trikitiaz gain, ze beste musika gustatzen zaitzue?

Josu: Denetik pixka bat. Jokin: Azkeneko entzungo nukeena da trikitia, ez dakit gaur egun zein talde dagoen ere. Niri asko gustatzen zait heavy, countrya, bluesa...

Musika talderik gustukoena?

Jokin: Niri beti gustatu izan zait Los Secretos taldea; mutikotatik gustatu izan zait, Golden-en entzuten genuenetik.

Josu: Bat esatearren, Kepa Junkera; asko gustatzen zait.

Erosi duzuen azkeneko diskoa?

Josu: Hiruzpalau urte izango dira diskorik erosi ez dudala.

Jokin: Urtarrilean Brasilen egon nintzen eta hantxe erosi nituen hogeitatu disko; ez ziren oso onak, baina, bueno, zerbait ezberdina zen, behintzat.

Pazkoetan, zer gustatzen zaizue gehien?

Jokin: Kalean sortzen den giroa; bestetik, aspaldiko lagunekin egoteko aukera ere izaten da.



JAI ZORIONTSUAK GUZTIO!!



URBIETA
zeramikak eta bainuak
PORCELANOSAKO banatzaile ofiziala

• Helbarrituentzako bainu erreformak eta osagarri bereziak (erakusketa eta salmenta)



GREMIOEN KOORDINAZIOA

ITURGINTZA

Erakusketa: Ibargarai 11-13 • Tel./Faxa: 943 76 14 50



LAGUN ARO
ASEGURUAK

Ondo pasau
jaixetan!

Ramon Maria Lili 6 behea • Tel.: 943 76 23 30 • Faxa: 943 76 41 54
Ordutegia: Astelehenetik egubakoitzera: 9:30etik 14:00tara eta 16:00etatik 19:30era

Adi!

EKAINAREN 7tik AURRERA Zorion agurrak ASTELEHENEKO GOIENKARIAN!

Gainera...



Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, Asteleheneko Goienkaria-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa




ANTZUOLA
Onintza Olano
Maiatzaren 26an, 4 urte.
Muxuak!
Amama Karmen.



BERGARA
Malen Gallastegi
Maiatzaren 31an, 10 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak.



BERGARA
Ana Etxaniz
Maiatzaren 29an, 10 urte.
Zorionak! Gurasoak eta Mikel anaia.



ELGETA
Gorka Arizmendiarieta
Maiatzaren 27an, 25 urte.
gure artistiarri. Kostautu, baiña akorde bi ikasi dittuk



ARRASATE
Iratxe Diaz
Maiatzaren 20an, 31 urte.
Urte askotarako!
Zure kuadrilakoak.



BERGARA
Patrxio Miner
Maiatzaren 24an, 13 urte.
Zorionak!
Mongi.



BERGARA
Alejandro
Maiatzaren 3an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxeokak eta Andrea.



BERGARA
Danel Urzelai
Maiatzaren 25ean, 9 urte.
Zorionak! Amatxi, atautxi,
Gaizka, Oier eta Maren.



BERGARA
Gaizka Urzelai
Maiatzaren 31an, 12 urte.
Zorionak! Amatxi, atautxi,
Danel, Oier eta Maren.



BERGARA
Aiert Kerejeta
Maiatzaren 29an, 5 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Amaia Santamaria
Maiatzaren 26an, 12 urte.
Zorionak! Gurasoak eta anaia.

iMPRESPAL, C.B.

INPRIMATEGIA

- Offset
- Enkuadernazioa
- Koloretako fotokopiak

Komenio kalea 2 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 00 01 • Faxa: 943 76 22 41
e-posta: imprespal@euskalnet.net

ZAMUR Industrias

CNC mekanizatuak

Telleria kalea-pab. B-3 B-4 • 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 16 67 • Faxa: 943 76 53 81



Zorionak bergararroi!

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko maiatzaren 28a / 203. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

Gazte mailako taldeak Gipuzkoako kopa irabazi du, Amara Berri taldeari irabazita

AINTZANE IRIZAR

Zapatu arratsaldean jokatu zuten kopako finala gazte mailako futbol taldeko mutilak. Beasainen izan zuten partidua, Amara Berri taldearen aurka; 2 eta 1 gailendu ziren antzuolarrak. Herritar mordoia izan zuten animatzen.

Zapatu iluntzean kopa eta guzti azaldu ziren Antzuolan gazte mailako futbol taldeko mutilak. Giroa ezin hobea zen. Ez zen gutxiagorako; izan ere, gazteen bigarren mailako Gipuzkoako kopa ekarri zuten etxera. 2 eta 1 irabazi zion Antzuolak Amara Berriri.

Andres Arbulu entrenatzaileak azaldu digunez, asko sufritu eta gero lortu zuten garaipena. Ondo hasi zuten partidua; laugarren minutuan sartu zuen lehenengo gola Aitor Godoyk. Handik gutxira, min hartu zuen, baina, jokatzeko jarraitu behar izan zuen, taldekide bat baino gehiago zegoen eta min hartuta.

Bigarren zatiko hogeita hamabosgarren minutuan Amara Berri berdintzea lortu zuen. Antzuolarrak, baina, ez zuten etsi, eta partidua amaitzeko bi minutu besterik geratzen ez zirenean, Aitor Godoyk berak sartu zuen Antzuolaren bigarren gola, partidua irabazteko balio izan zien gola, hain zuzen ere.



Ligan eskas ibili ziren, baina kopan bikain ibili dira gazte mailako jokalariek.

Honako hauek osatu dute aurtengo denboraldian gazte mailako futbol taldea: Aitor Godoy, Eneko Mujika, Ekaitz Olalde, Imanol Lizarralde, Luis Franco, Auritz Guridi, Ibon Urzelai, Iñaki Arbulu, Mikel Idiakez, Txomin Alberdi, Unai Madariaga, Josu Asensio, Ander Cabrera eta Mikel Irizar bergararrak.

*Alebin mailako
futbol taldeak
Gipuzkoako
Txapelketako finala
jokatuko du*

KOPAN, BIKAIN IBILI DIRA

Denboraldia ez zuten batere ondo hasi antzuolarrak. Liga eskasa egin zuten. Urtarrilean amaitu zuten liga, eta euren taldean, azkeneko postuan geratu ziren. Jokatu zituzten hamabi partiduetatik zazpi galdu zituzten, bi berdindu eta hiru besterik ez zituzten irabazi. Guztira, 20 gol sartu zituz-

ten eta 29 gol jaso.

Gauzak horrela, ez zuten igorera faserako sailkatzeko aukerarik izan, eta kopa jokatu behar izan dute aurtun.

Kopa jokatzeko hasi orduko, zeharo aldatu ziren gauzak gazteendako. Azkeneko hilabeteetan guztiz aldatu zaizkie gauzak antzuolarrak. Jokatu dituzten hamabi partiduetatik bederatzirabazi dituzte kopan, bi galdu eta bat berdindu dute. Hona hemen beste datu bat, ligako eta kopako partiduen arteko aldea ikusteko: kopan, 45 gol sartu dituzte antzuolarrak, eta 16 besterik ez dituzte jaso.

ALEBINAK GIPUZKOAKO FINALERA

Gipuzkoako Txapelketako finalerako sailkatu da Antzuolako alebin mailako futbol taldea. Eskola arteko txapelketa jokatzeko dute alebinek.

Zapatuan, Estalan jokatu zuten finalerdiko partidua Iraurgi taldearen aurka; 4 eta 3 irabazi zuten antzuolarrak. Oso partidua parekatua eta lehiatsua izan zen, baina, azkenean, euren nagusitasuna erakusteko aukera izan zuten etxekoek.

Oraingo asteburuan jokatuko dute finaleko partidua antzuolarrak. Irabazten badute, herriko bi talde izango ditugu Gipuzkoako txapeladun, gazteak eta alebinak, alegia.

AISSIALDIA

Gaztetxoendako Errekaldeko lokala zabaldu dute

AINTZANE IRIZAR

Aurreko asteko zapatuan zabaldu zituen ateak Errekaldeko gaztetxoendako lokalak. Zapatu eta domeketan egongo da zabalik, eta nahi duten gaztetxo guztiak erabili ahal izango dute lokala. Neska-mutikoen oporrak hartzen dituztenean, berriz, egubakoitz gauetan ere zabalduko dute.

Aurreko asteburutik zabalik dago gaztetxoendako lokala, Errekalde auzoan.

Gaztetxoek oporrak hartzen dituzten bitartean, zapatu eta domeketan egongo da zabalik lokal hori: zapatuetan, 16:00etatik 20:00etara eta 21:00etatik 23:00etara; domeketan, berriz, 16:00etatik 21:00etara.

Oporrak hartzen dituztenean, berriz, egubakoitz gauetan ere zabalik izango dute lokala neska-

mutikoen: 21:00etatik 23:00etara egongo da zabalik, hain zuzen ere.

NEURKETAK EGITEN

Udaleko arduradunek azaldu digutenez, egunotan zarataren neurketak egitekoak dira teknikariak. Ordura arte, eta neurketaren emaitzak ezagutu arte, gauzez itxita egongo da. Hortaz, zapatu eta domeka arratsaldetan bakarrik zabalduko dute.

HIRU BEGIRALE EGONGO DIRA

Hiru begiralek jardungo dute gaztetxoekin lanean; Goretti Fernandez antzuolarra izango da lokalaren eta jardueren koordinatzailea. Beste bi begiraleak Maider, bergararra, eta Maria, azpeitiarra, izango dira.

Hainbat ekintza egiteko aukera izango dute gaztetxoek Errekaldean. Begiraleak eurei laguntzeko egongo dira, baina, helburua da gaztetxoek eurek izatea

gauzak antolatzeko ekimena.

Hilabete askotako lanaren emaitza da orain gaztetxoek Errekaldeko lokala izatea. Txatxilipurdik gaztetxoaren beharren gaineko ikerketa egin zuenetik, hainbat batzar egin dituzte Udaleko arduradunek gazteekin.

Horrela, hainbat baldintza eta arau adostu ondoren jarri die Udalak lokala. Hemendik aurrera egoteko eta aisialdirako toki bat izango dute gaztetxoek.

KIROLA

Garitanok seigarren egin zuen Aizkorriko maratoian eta Baleztana Lanzaroten egon da

AINTZANE IRIZAR

Bi antzuolarrek parte hartu zuten aurreko domekan, Zegama-Aizkorri mendi maratoian. Julen Garitano bikain ibili zen eta seigarren egin zuen. Igor Labaien, berriz, 188. postuan sailkatu zen. Guztira, 333 lagunek hartu zuten parte maratoian.

Julen Garitanok lan bikaina egin zuen aurreko domekan Zegama-Aizkorri mendi maratoian. Sei garren postuan bukatu zuen proba; lau ordu, 21 minutu eta 58 segundo behar izan zituen lasterketa amaitzeko. Bera izan zen lasterketako hirugarren euskalduna. Zuhaitz Ezpeleta arrasatearrak bigarren egin zuen, Pelotti italiarraren atzetik; arrasatearra izan arren, ezaguna dugu Zuhaitz Antzuolan, Goizperren dihardu eta lanean. Asier Urdanpilleta oñatiarra, berriz, bosgarren postuan sailkatu zen.

Julenendako lehenengo aldia zen Zegama-Aizkorri mendi maratoian parte hartzen zuena. Esan digunez, gainera, azkeneko

aldia izan da; ez du berriro parte hartzeko asmorik. Aurrerantzean kirola beste era batera bizi nahi du: lasaiago. Gogor entrenatu da Julen Aizkorriko lasterketa prestatzeko, eta pozik dago lortutako emaitzarekin.

Beste antzuolar batek ere hartu zuen parte maratoian, Igor Labaienek, hain justu. 188. postuan sailkatu zen (06:08:33).

BALEZTENA, 'IRONMAN' LASTERKETAN
Karlos Baleztana antzuolarra, bestalde, Lanzaroteko ironman lasterketan parte hartu zuen aurreko asteko zapatuan. Kontatu digunez, ez zen oso ondo ibili; izan ere, azkenaldian ezin izan da behar bezala entrenatu.

Igerian 3,8 kilometro, bizikletan 180 kilometro eta maratoia egin behar izan zituzten. Karlosek 12 ordu eta 25 minutu behar izan zituen lasterketa amaitzeko.

Eskarmentu handikoa da Karlos era honetako probetan; dagoeneko zortzi ironman probatan hartu du parte: Lanzaroten hiru aldiz, bi aldiz Alemanian, Austrian beste behin, baita Danimarkan eta Holandan ere.



Julen Garitano, Aizkorriko maratoian.

ASTELEHENEN GOIENKARIA

LABUR

Kirolariendako dirulaguntzak emango ditu udalak

Kirol jarduerarekin lotutako mediku azterketak egiteko dirulaguntzak emango dizkie Udalak hala eskatzen duten herritarrei. Udalak era honetako laguntzak ematen dituen lehenengo aldia da.

Gehienez, urtean behin jaso ahal izango du herritar bakoitzak laguntza hori. Guztira, 25 euro emango dizkie Udalak kirolari bakoitzari. Eskaera egiteko, nahikoa da azterketaren ordainagiria udaletxean aurkeztea. Norbanakoek zein kirol elkartetako kideek eskatu ahal izango dituzte laguntzok.

Kapitain berria izango du alardeak aurtengo jaietan


Jose Angel Arbulu izango da aurrerantzean Mairuaren Alardeko eskopetariaren buru edo kapitain berria. Atzo, eguena, egitekoak ziren Mairuaren Alardearen Elkartearen aurkezpena, eta hantxe eman zuten berritasun horren berri.

Genaro Laskurainek 25 urtez egin du eskopetariaren buruaren papera Mairuaren Alardean, eta iaz aurreratu zuen alardea lagatzeko asmoa zuela.

Udako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

Udalak udarako antolatutako ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago ekainaren 8ra arte, martitzena.

Hainbat ikastaro antolatu dituzte gaztetxoendako, helduendako eta erretiratuendako. Gimnasia, aerobik eta step ikastaroak, orientazio ikastaroak, umeei masajeak ematen ikasteko ikastaroak... Ingeleseko udalekuetarako izena emateko epea, berriz, gaur, hilak 28, amaitu da.



Sukaldaritza ikastaroa hasi da

Martitzenean hasi zuten Idolaz euskara elkarteak antolatutako sukaldaritza ikastaroa, eta hiru egunez, hainbat plater goxo prestatzen ikasi dute. Dozena bat lagun ibili dira ikastaroan, eta Joseba Lamariano sukaldari antzuolarra izan dute irakasle. Lehenengo egunean hainbat entsalada prestatzen ikasi zuten; bigarrean, pastarekin egindako platerak, eta azkeneko egunean, buzana saltsan prestatu zuten. Majo afaldu zuten guztiek ikastaroen ondoren./A.I.



Juan Cruz

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak
Estudioko argazkiak

BITXITEGIA

Marrokineria
Erlojuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel.: 943 78 70 66. ANTZUOLA

AITZ-GARBI



taberna
jatetxea

Pintxoak eta
kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariak

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004ko maiatzaren 28a / 187. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com

Udalean dagokion zinegotzia eskatu du plataformak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Udal hauteskundeak egin zirenetik urtebete bete da aste honetan, eta herri plataformetako kideek udalean ordezkariarik ez dutela salatzen protesta ekintzak egin dituzte asteon. Elgetan kontzentrazioa egin zuten martitzen iluntzean plazan.

Maiatzaren 25ean urtebete bete zen azken udal hauteskundeak egin zirenetik. Herri plataformek ezin izan ziren aurkeztu orduan, eta urtebete joan den honetan, oraindik ere udalean lekuri ez dutela salatzen kontzentrazioak egin dituzte.

Hala, *Demokrazia Euskal Herriarentzat* lelopean Elgetako plazan 15 lagun elkartu ziren, tartean Elgeta Auzolanian plataformako kideak eta baita Aralar alderdiko zinegotziak ere.

Udalean Elgeta Auzolanian Plataformakoek badute hitza, eta informazioa ere jasotzen dute, baina eurek ezin dute botorik eman.

Parte-hartzearen gainean izan da elkarrizketarik Udaleko alderdien artean, baina erabakirik ez



Plazan 15 lagunek elkarretaratzea egin zuten martitzen iluntzean.

da hartu. Beraz, orain urtebete-ko egoera berean jarraitzen dute.

Elgetako Aralarrek uste du plataformak herritarren babasaren arabera presentzia izan

behar duela Udalean. "Borondatea egonez gero, badaude aukerak Auzolanian-ek erabakiguneetan botoarekin parte hartzeko", esan dute Aralarakoek.

KIROLA

Bihar Ibarreko Pilota Txapelketako finalak

I.A.

Debagoieneko kirol txapelketa zirkuituen baitan lau t'erdiko binakako pilota txapelketa dago jokoan Elgetan. Joan zen asteburuan finalerdiak jokatu zituzten ibarreko pilotariak eta bihar, zapatua, finalaren txanda izango da. Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzekeo partiduak ere jokatu dira.

Finalerdietan Jabier Isturizek eta Ibai Redondok 8-22 galdu zuten Juantxu eta Unai Uriarteren aur-

ka. Eta bigarren partiduan, Oruerasagastik eta Larrañagak 22-14 irabazi zieten Lizarralderi eta Uribarreni.

Hirugarren eta laugarren posturako partidua Isturiz-Redondo eta Lizarralde-Uribarren bikoteek jokatu dute; txapelketa erabakitzekeo partidua, berriz, Oruerasagasti-Larrañaga eta Juantxu-Unai Uriarte bikoteek.

Lehenengo partidua 11:30ean jokatu da eta finala 12:30ean. Sari banaketa, berriz, 13:15ean egingo dute.



Oruerasagasti eta Larrañaga (ezkerrean) biharko finalean izango dira.



Ardo dastatze ikastaroa abian

Astelehenean 15 elgetarrek ekin zioten ardo dastatze ikastaroari. Iluntze aldera Ozkarbi Elkartearen bi orduko saioak egingo dituzte maiatzeko eta ekaineko hainbat egunetan. Azken saioa ekainaren 10ean izango da. Ardoa egoki nola dastatzen den irakatsiko die Guillermo Castaños enologoak. Parte-hartzaileek zenbat ikasiko duten ez dakigu, baina eskolek alde praktikoa ere badutenez, ikastaroaren aitzakian ardo mota ezberdin asko probatuko dituztela bai. /I.A.

LABUR

Kirol instalazioen gaineko bilera ekainaren 8an

Udal Kirol Zerbitzuak deituta, datorren ekainaren 8an, martitzena, bilera izango da iluntzeko bederatzieta liburategian. Kirol instalazioek eta bereziki pilotalekuak duten berritzeko beharra ikusita, proiektu bat egin nahi du Udalak. Horretarako, aurrez herritarrekin hitz egin nahi du, gai horren gainean duten iritzia jakiteko. Bilera irekia izango bada ere, dei berezia egin nahi diete alderdi politiko, kirol talde eta eskolako ordezkariari, baita herritako kirol-zaleei ere.

ELKARRIZKETA

IZASKUN OJANGUREN/KANTARIA

“Nire kantuen letrek sentimenduak azaltzen dituzte”

I.A.

Izaskun Ojanguren 21 urteko elgetarrak urte batzuk daramatza gitarra hartu eta kantuan. Jendaurrean lagun artean baino ez du abestu. Orain, maketa bat grabatu berri du, eta jaietan herritarren aurrean joko duela aurreratu digu.

Nolatan hasi zinen musika-gintzan?

Hasieran nire kontura hasi nintzen etxean gitarrarekin. Gero abestiak egin nituen eta baita lagunek emandako letrei musika jarri ere. Gustuko dudalako hasi nintzen eta orain eguneroko gauza bat da nire bizitzan. Etxean askotan jotzen dut gitarra, egunean ordubate gutxienez.

Zein motatako musika egiten duzu?

Oraindik ez dut oso zehaztuta, baina musika lasaia jotzen dut gitarra akustikoarekin. Gurako nuke aurrerago talde batekin jardun eta kantuei mugimendu handiagoa eman. Orain ez daukat

“Elgetako jaietan, gaztetxean joko dut lehenengo aldiz jende askoren aurrean”

apenas astirik, baina denborarekin nahiko nuke pop-rock talde batean jo. Izan ere, nik egiten ditudan letra eta melodiendako egokiena litzateke.

Abestien letrak zuk egiten dituzu eta baita lagunek ere. Zein gai lantzen dituzte kantuek?

Gehienetan sentimenduak. Izan ere, letrak egiteko orduan momentuan gertatutako gauzetan inspiratzen naiz. Bestalde, beste kantu batzuk idazle ezagunen poemetan oinarrituta egin ditut. Maketan bederatzi abesti grabatu ditut, baina guztira 12 kantu dauzkat eginak. Guztietan musika nirea da eta letrak bi edo hiru kanturenak.



Nola bururatu zitzaizun maketa bat grabatzea?

Bizikide batzuek Andoaingo Irudi eta Soinu Eskolan ikasten dute, eta estudio bat daukan lagun batek grabatzeko aukera eman zidan. Egun batean dena graba-

tu genuen. Orain produkzio lana falta da, baina ongi aterako dela uste dut.

Maketa hori eskuratzeko aukerarik izango da?

Oraingo ez dut horretan pentsatu. Niretzako egindako gauza

bat egitea zen asmoa, eta eskatu didaten lagunei ere emango diet. Aukera sortuz gero agian salduko dut.

Lagun artean banatuko duzula diozu. Zer esaten dizute lagunek horren gainean?

Denek esan didate orain artean nolatan egon naizen isilik. Etxean ere sei hilabetean gitarra jo gabe egon naiz, eta entzun nautenean eurek animatu naute maketa grabatzera.

Jendaurrean abestu duzu?

Eskolan jo izan dut inoiz, eta orain dela urte batzuk Elgetan, Egin-en aldeko jai batean ere jardun nuen. Bestela, lagunak aurrean, jende gutxiren artean baino ez dut jo gitarra.

Noizko kontzertu bat Elgetan?

Elgetako jaietan joko dut domekan. Ordubate inguruko kontzertua izango da gaztetxean. Nik bakarrik jardungo dut nire gitarrarekin eta nire ahotsarekin. Herritarren aurrean jotzeak erreparatu pixka bat ematen dit, eta urduri joango naiz, baina hala ere, ahal dudana emango dut.

JAIK

Sokatira proba berezia Asentzio Egunean

I.A.

Jende asko elkartu zen domekan Asentzioko putzuaren bueltan, Asentzio eguneko ekitaldietan. Txirrindulari lasterketa, meza, dantza taldeko gaztetxoaren emanaldia eta bazkaria izan ziren, besteak beste.

Txirrindulari lasterketan Andoni Errasti izan zen lehenengo, baina txirrindulari motelena ere saritu zuten: Eneko Maguregi, hain zuzen ere.

Baina dudarik gabe ikusmin handien herri kirolek sortu zuten. Goizean hainbat proba izan ziren, eta arratsaldean sokatira berezia izan zen Asentzion.

Iban Retolaza, Eñaut Arantzeta eta Gorka Arizmendiarrak putzuaren alde batetik eta Sebastian Arantzabal, Juan Ramon Garitano eta Etor Sarasua bestetik putzu guztia zeharkatzen zuten soka luze bati tiraka jardun zuten.

JUAN RAMON ETA ETOR PUTZURA

Sebastian, Juan Ramon eta Etor larri ibili ostean, labaindu eta azken biak putzura jausi ziren. Eskuak sokari lotuta zituzten lehian ziharduten sei lagunek. Hala ere, Sebastian askatu, eta ez zen busti. Izan zen putzura bota nahi izan zuenik ere, baina ez zuten lortu.



Sebas Arantzabal, Juan Ramon Garitano eta Etor Sarasuak sokatiran galduta zuten.

ARETO FUTBOLA

PARTIDUAK

Maiatzak 29, zapatua
15:00: Komando Piperrak-Txapela.
La Kokotxa
16:00: La Kokotxa-Makanaki
Txapela
17:00: Spias-Ariñiketan.
Makanaki

EMAITZAK

Spias-La Kokotxa 5-4
Makanaki-Vicios 0-7
Komando Piperrak-Ariñiketan 0-6

SAILKAPENA

Taldea	P	J
1. Ariniketan	8	4
2. Vicios	7	5
3. Makanaki	4	4
4. Txapela	4	4
5. Komando Piperrak	5	4
6. Spias	4	3
7. La Kokotxa	4	0



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR



Enpresa Erregistratua

ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Goibekokale



Laster solariuma



Plaza Andra Mari 2
Tel. 943 76 81 97
20690 Elgeta

ERRETRATUZAHARRA

Koadrilen arteko lehiaketa Pazkoetan, 1965. urtean

Ia 40 urte dauzka ondoko argazkiak. Sasoi hartan koadrilen arteko lehiaketa egiten zen Pazkoetan, eta herriko koadrilak mozorrotuta ateratzen ziren Pazkoetako martitzenean. Ondoren, estanpen lehiaketak koadrilen arteko lehiaketa ordezkatu zuen, eta harrera bikaina izan zuen ekimen hark ere. Orduko gazteek gogoratzen dutenez, giro bikaina izaten zen.

Gaur egun ez da horrelakorik egiten, baina girorik ez da falta izango aurtengo jaietan. Lagunartean ondo ibiltzeko gogo biziz ibiltzen dira koadrila guztiak. Kanpotik ere jende ugari etorriko da ziurrenik.

Aste honetako erretratu zaharra 1965eko ekainean aterata dago. Hauek dira bertan azaltzen direnak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Francisco *Pantxo* Mazorriaga, Jon Gurutz *Kuxito* Gallastegi, Begoña Muruamendiaraz, Maria Eugenia Igartza, Arantxa Muruamendiaraz eta Javier Otaño.

Makurtuta: Kontxi Azkarate eta Angel Gallastegi.

Argazkia: Jon Gurutz Gallastegi (Bergarako Udal Artxiboa).

**ADI, IRAKURLE!**


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

- Planoen handitzeak eta txikitzeak
- Ploteoa eta Ecaweo
- Plastifikazioak DIN A4/A3 eta posterrak
- Koloretako fotokopiak
- Eskaneatzeak koloretan makina digital bidez
- Bulego materiala
- Fax publikoa
- Enkuadernazioak

E L K A R Fotokopiak

Gora Pazkoak!

e-posta: elkarcopias@terra.es
Artekale 1 • Tel.: 943 76 02 02
Tel./Faxa: 943 76 58 16

**HORTZ KLINIKA**

Silvana Caviglia doktorea
Simon Arrieta plaza 3, 2. Tel.943 76 38 54 BERGARA

ASEGURUAK

• Sermesa
• Pakea
• Grupo Eroski

• Ibersalud Globalcard
• Aegon
• Asepeyo

• Mapfre
• Fremap

• Azkaran
• Previsora

Ondo pasau jaixetan!


ELUSU ERAIKUNTZAK



- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformak

Teilatuak
Sukaldeak
Bainuak
Fatxadak

**Baserri eta jauretxeen
erreformetan
eta txaleten eraikuntzan
espezializatuta gaude**



Ondo ibili Pazkoetan!

Arruriaga 5
943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45

BERGARA Kafea-Pentsioa



EGUNERO GOIZEKO 7:00etatik ZABALIK
Bidekurutzeta 34, BERGARA 943 76 47 23

Ondo pasau Bergarako jaixak!



Logelak



Kafetegia



Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

DHL markapean bildu dira Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresentan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena. Honela are hobea den zerbitzu globala eskaintzeko. Modu honetan eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitez gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 